

ASTELEHENEKO Goienkaria

2008ko martxoaren 3a > Astelehena > IV. urtea > 180. zenbakia > Euro 1

www.goiena.net

"Pertsona nagusien familiak errekurtsu sozialez hornitu behar dira"

Lara Santamaria
Psikologoa > 06



G2a

Ventos de Saudade: fadoak Elgetan > 23

ARRASATE

Biona taberna historikoaren itxiera ospatzeko jaia > 10

OÑATI

Aloña Mendiko txirrindulariak errepidean dira > 12

BERTSOLARITZA

Arriolabengoa, Iker Agirre eta Manex Agirre, sailkatuta > 24

AZOKA > MAKINA-ERREMINTAREN BIURTEKOA

Debagoieneko hamabi enpresa dira BECeko azokan, gaurtik

DEBAGOIENA Bergarako sei enpresa, Arrasateko hiru eta Aretxabaleta, Antzuola eta Elgetako enpresa bana BECen

URTEURRENA Makina-erremintaren Biurtekoak 25. urteurrena bete du; 1.761 enpresa izango dira aurten

BEC Barakaldoko erakustazoka zapatara arte izango da zabalik; Ibarretxe Lehendakariak inauguratuko du gaur goizean > 04

BERGARA > HILETA, GAUR

Egileor bertsolaria hil da

Jesus Alberdi 'Egileor' bertsolari ezaguna hil zen atzo, bihotzekoak jota > 05

Antolatzaileak pozik merkealdien azokak izandako erantzunarekin

Aste bukaeran Arrasaten ospatutako merkealdian azokak 3.000 bisitari inguru jaso ditu. Aurtengoa bigarren ekitaldia zen eta antolatzaileak pozik azaldu dira jasotako erantzunarekin. Eguraldi onak ez du lagundu erosleak erakartzeko, baina dendariak pozik ziren egindako salmentekin.

Arrasateko 23 denda egon dira zapatuan eta domekan Uarkape pilotalekuan eta zapatuan egon zen jende gehien. Etorritakoen artean 1.000 euro zozketatu zituzten antolatzaileek atzo. > 05



AZOKA Merkealdien azokan 3.000 lagun inguru ibili dira. Goiko argazkia zapatu eguerdian aterata dago.

JOSETXO ARANTZABAL

AURKIBIDEA

Debagoiena > 04-05
Elkarrizketa > 06
Iritzia > 07-08
Herriak > 09-14
Kirola > 15-22
Kultura > 23-27
Saillatuak > 28
Irrati-Telebista eta Hitzorduak > 29
Berri-zakua > 30-31
Azkena > 32

KIROLA > OLALDE ELKARTEA

Pilota jaialdia Antzuolan

Jende ugari batu zen zapatuan Antzuolako pilotalekuan Olalde elkartearen 30. urteurrena ospatzeko. Pilotaren alde lanean ibilitakoak omen du zituzten eta Aitor Elkoro erretiratu berria izan zen protagonistetako bat. > 15

OÑATI > KIROLDEGIA

Hobekuntza lanak Zubikoan

Kantxa berriko harmailako hormaren altuera jaitsiko dute, altuegia delako ikuslentsat. Era berean, baranda bikoitza jarriko dute. Lanak datorren astean hasiko dira. Hobekuntza lanak 20.000 euroko aurrekontua dute. > 09

SUPER AMARA

DENAK GUTXIAGO BALIO DU

BERGARA. San Lorenzo Poligonoa. Amillaga kalea, 18 Bezeroentzako Aparkalekua



PARKE BERRIA Elgetan, zabaltzear dago Elgetako San Roke osteko parke berria.

JOSETXO ARANTZABAL

HIRIGINTZA > HIRI TRESNERIA

Bizimodua erosoago egiten digun tresneria mantentzea garesti irteten zaie udalei

MIRIAN BITERI > BERGARA

Gure herrietako bizimodua erosoago egiten du hiri tresneriak. Edozein tokitan aurkitzen ditugu bankuak, paperontziak, lorontziak, semaforoak, seinaleak edo gauean bidea erakusten diguten farolak, besteak beste. Baina guzti horrek mantenua eskatzen du. Debagoieneko udalak hiri altzariak berritzeko zein berriak jartzeko diru kopuru garrantzitsua bideratzen dute urtero.

Arrasateko aurtengo udal aurrekontuan, esaterako, hainbat partida aurreikusten dira horretarako. Obretako arduradun Moises Altunak azaldu duenez, hiri tresneriaren mantenturako 35.000 euro gorde ditu Udalak; tresneria berria erosteko, berriz, 32.000 euro jarri ditu. Haurren parkeek 75.000 euro jasoko dituzte eta autobus geltoki berriak 10.000 euro.

Semaforoen mantenuak eta erosketak, bestalde, 24.000 euro kostako zaio Udalari aurtun: 12.000 euro bakoitzak. Seinaleetan 25.000 euro gastatuko ditu. Seinale bertikalak eta horizontalak daude partida horren barruan.

Hesiek ere diru kopuru inportantea dute. Altunak jakinarazi duenez, guztira, 60.000 euro inguru joango dira berriak jartzen.

KOMUN PUBLIKO BERRIA

Komun publikoak ere hiri tresneriaren barruan sartuta daude. Joan zen urtean Seber Altuben eta Garibain bana jarri zituzten eta aurtun, beste bat jartzeko asmoa du. Non jarriko den erabakitzeke dago oraindik. "Ideiak ditugu baina ez dago ezer zehaztuta. Orain arte jarritakoak baino sinpleagoa izango da", dio. Horretarako, 30.000 euro aurreikusten dira.

Komunak, bestalde, mantentzeko behar dira. Hortaz, funtzionamendurako 800 euro eta mantentzeko 3.600 euro bideratuko dira: "Kopuru hori, hala ere, ez da bakarrrik Seber Altube eta Garibaiko komunetarako, Monterrongoa ere badago". Farolei dagokionez, horien berritzea zein berriak jartzea argiteri publikoaren izeneko partidari dago sartuta.

Partida guztiei gehitu behar zaie, gainera, udalerrian egiten diren urbanizazio berrien tres-

Arrasaten, gunearen arabera, irizpide bat edo bestea hartzen du kontuan Udalak; ez da berdina Alde Zaharra edo auzo bat

Bergaran, Obra eta Zerbitzuetako aparejadoreak txostena aurkeztu behar du

nerian gastatzen dena. "Aurtun Juan Carlos Guerra, Elizalde eta Galizia kaleetan obrak egingo ditugu eta bakoitzak partida orokorra du. Hiri tresneria hor sartuta dago", azaldu du Altunak.

BAKOITZAK BEREA

Altzarien inguruko erabakiak hainbat departamentutan hartzen direla dio. Hala, Obren Saila udalerrian egiten diren urbanizazioetaz arduratzen da; Zerbitzua garraioaz eta komun publikoetaz; Argiteria eta Elektrizitatea argi publikoaz; Mantentzea tresneria berria erosteko edo puskatuta dagoena konpontzeaz.

Horren harira, Udalak irizpide batzuk jarraitzen dituela dio. "Gunearen arabera irizpide bat edo bestea kontuan izaten dugu. Alde Zaharri tratamendu bat emango diogu eta Gesalibar auzoari beste bat", adierazi du Arrasateko Obretako arduradunak.

BERGARA

Bergaran ere hainbat partidetan dago banatuta. Umeen jolaslekuendako 45.000 euro bideratu-

ko ditu aurtun Udalak. Partida hori urte batetik bestera aldatzen dela dio Udalako kontu-hartzaile Aitor Iturriagak. "2005ean, 237.000 euro gastatu genituen", gogora ekarri du. Tresneria berria jartzeko 120.000 euro daude.

Argiteri publikoagatik 143.000 euro gastatuko ditu aurtun. Kopuru horren barnean dago urtean zehar konpondu edo aldatu behar diren farolen gastua. Lorontziei dagokionez, lorezaintza izeneko diru kopuruan sartuta daudela dio Iturriagak. Horretarako 426.000 euro daude. Lorategien mantenu osoa eta egiten diren inbertsio berriak aurreikusten du horrek.

Brigada arduratzen da udalerriko lorategietan landatu behar diren loren zein erosi behar diren lorontzien gaineko erabakiak hartzeaz. Bestelako lanetarako Obra eta Zerbitzu Saileko aparejadoreari dagokio txostena Gobernu batzordean aurkeztea.

Arrasaten bezala, Bergaran ere aipatutako gastuetatik kanpo geratzen da eraikitzen diren urbanizazio berrietako tresneria, aurrekontua globala da-eta.

Eskoriatzan, iazko egitasmoa jarriko dute asteen martxan: Aranburuzabalako autobus geltokia

Elgetan, San Roke-oste eta Asentzioko bankuak berritzeko laguntza eskatu diote Eusko Jaurlaritzari

Aramaion, olio birziklatzeko eta mahuketarako 3.000 euroko partidak aurreikusita daude

OÑATI

Aurreko bi herrietan bezala funtzionatzen dute Oñatiko Udalan: partida ezberdinak dituzte. Hango kontu-hartzaile Pascual Elustondok azaldu duenez, argi-instalaziorako 10.000 euro bideratuko dira aurtentzen; hiri tresneria mantentzeko, berriz, 22.646,54 euro. Umeen parkeak azken atal horren barnean sartuta daude.

Autobus geltokirako 30.000 euro aurreikusi dira. Egiten diren inbertsio berriak, aldiz, partida global batean aurreikusita daude Oñatin, baita hiri tresnerian egiten diren inbertsioak ere.

Lorontzien erosketa orokorragoa den lorezaintza arloan dago sartuta. Erabakiak hartzeko prozedura antzekoa da ibarreko herri guztietan. Oñatin hirigintza batzordea da proposamenak egiten dituen eta Gobernu batzordeak du azken hitza.

ARETXABALETA

Aretxabaletan, banku eta pape-rontzien mantenurako gastua 10.500 eurokoa da; argiteri publiko barruan dagoen farolena 40.000 eurokoa; eta zebrabideen mantentzea 60.000 eurokoa da. Partida horiek otsailan onartu den aurrekontuan aurreikusita daude.

Altzarien diseinuaren ezaggarriak urbanizazio proiektuetan zehazten direnak direla azaldu du Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak. Proiektu horien onarpena Gobernu batzordeari dago kiola gaineratu du.

Aretxabaletan katalogatu barik dauden elementuak Durana kaleko bankuak eta kale bereko argi-paldoak direla esan du azkenik Hirigintza teknikari Jose Mari Segoviak.

ESKORIATZA

Eskoriatzan aurtentzen ez dituzte inbertsio berriak egin behar. "Daukaguna mantenduko dugu", azaldu du Obra eta Zerbitzueta-ko zinegotzi Dorleta Lezetak. Hiri tresneria mantentzeko lanetarako 20.000 eta 30.000 euro artean bideratuko direla gaineratu du.

Horrez gain, iazko udal aurrekontuan aurreikusita bazegoen ere, egin barik geratu zen egitasmoa jarriko dute abian aste honetan. Aranburuzabalako bi autobus geltoki berri jarriko dituzte. Datozen egunotan iritsiko dira. Biek 6.000 euro balioko dute.

ANTZUOLA

Antzuolan ere altzariak berritzeko partida ez da finkoa. Hona hemen iazko gastuak: argiteriaren mantentzea 6.500 euro; paperontziak: 1.750 euro; lorontziak: 1.800 euro; seinaleak: 5.400 euro; bankuak: 1.100 euro; barandak: 2.100 euro; eta bus aterpea: 4.565 euro. Aurtengoak oraindik onartu barik daude.

Hiri tresneria jartzekoan "homogeneoa" izatea eta "herri osoan irudi berdintsua lortzea" nahi dela dio hango aparejadore Valen Moñuxek. "Mantenu lanak egiteko oso ondo dago antzerako modeloak erabiltzea", esan du. Proposamenak udal langile eta agintariek ematen dituzte, baita herritarrek ere.

ELGETA

Elgetan urbanizazio berriak dituzte: Uriburukoa eta Torrealdekoa. Udalak gogorarazi duenez, urbanizazio horiek egiteaz erakuntza enpresak arduratzen dira. Bada, urbanizazio horietako hiri tresneriaren mantentzea Udalen kontua doala diote. Uriburukoa amaituta dago eta Torrealdekoa bukatzeaz dago.

Asentzio eta San Roke-osteko bankuak berritzeko, bestalde, laguntza eskatu dio Eusko Jaurlaritzari. Bost banku aldatu behar dira eta horretarako, 3.872 behar dira. Eusko Jaurlaritzaren erantzunaren zain dago Udala orain.

ARAMAIO

Aramaion nahiko gastatuko dute aurtentzen. Parkea berritzeko 6.000 euro bideratuko ditu; bankuen mantenturako 2.184 euro; argiteri publiko berritzeko 9.500 euro; haurren jolas-parkerako 5.000 euro; eta errepideko seinaleak konpontzeko 3.000 euro.

Horrez gain, olio birziklatzeko etxetarako 3.000 euro aurreikusitak ditu aurtentzen aurrekontuak; eta ureztatzeko mahukak erosteko beste 3.000 euro. Udalerriko iturriak berritzeko, bestalde, diru kopuru bera jarriko du.

LEINTZ GATZAGA

Azkenik, Leintz Gatzagako aurrekontuetan ez dago hiri tresneriarendako partidarik. Zerbait konpondu behar denean, inbertsio-etarako aurreikusita dagoen dirutik hartzen da. Joan zen urtean, esaterako, ez zen ezer egin. Baina, 2006. urtean udaletxe parean dagoen lorategia berri zuten eta umeendako ziburuak jarri ziren. Hiri tresneria garesti irte-ten dela laburbildu daiteke.

BERGARAKO SANTA MARINA ELIZA ONDOAN EGINDAKO EKIMENAK



Fraiskozuri bidegurutzean jarritako hesi berriak kritika ugari izan ditu.

M.B.



Lorontziak azokako sarrera jarri zituzten eguenean.

M.B.



Zutoinak jartzeko zuloak egiten ibili ziren eguenean Udaleko langileak.

M.B.

Zeresan handia sortu duten hesia eta lorontziak

Santa Marina elizako ingurunean aldaketak izan dira azkenaldian. Lehenengo Fraiskozuriko bidegurutzean hesi luzea jarri zuten. Joan zen asteen, berriz, Santa Marina ondoko aparkalekuan zeuden bi lorontziak tokiz aldatu zituzten. Bi ekimen horiek bergararren ahotan daude egunotan.

Fraiskozuriko bidegurutzean jarritako hesi berria jartzerakoan, oinezkoen segurtasunean pentsatu duela azpimarratu du Bergarako Udalak. Bada, herritar guztiek ez dute horrela pentsatzen eta oztopo baino ez duela egiten uste dute batzuek.

Santa Marinako zubia igaro ostean bidea erditik mozten du hesi horrek. Oinezkoak ondoko espaloitik joan daitezela eta metro batzuk aurrerago dagoen zebrabidetik gurutzatzea bilatzen zuten horrekin Udalak. Batzuek hori egiten dute baina, beste batzuek dagoeneko bide alternatiboak topatu dituzte, espaloiraino ez joateko.

Hala, batzuek hesi berria inguratzen dute, ondoko dagoen zuhaitzaren albo batetik. Beste batzuek, berriz, hesia zeharkatzen dute, goitik salto eginez edo behetik makurtuta. Modu batean edo bestean, errepidera irteten dira bi bide horiek aukeratzen dituztenak.

Lanak oraindik amaitu barik daude. Santa Marinako zubikoarekin batera, zutoinak jarriko dira hemendik gutxira: bata Kutxako izkinan eta bestea, Euskadiko Kutxa parean. Horien helburua ere oinezkoek gura duten tokitik ez gurutzatzea da.

LORONTZIAK

Lanak ez dira hor amaitzen. Hesi berria jarri duten tokitik metro gutxitara aparkalekua dago. Han egurrezko bi lorontzi handi jarri zituzten udazkenean. Horiek ere herritar batzuen haserre eragin zuten, aparkatzeko toki kentzen zutelako. Herrian aparkatzeko toki gutxi dagoela eta dagoena kentzea ez zuela ondo ikusten jakinarazi zigun orain dela gutxi irakurle batek.

Lorontziak tokiz aldatu dituzte orain. Joan zen eguen goizean kamio batera igo zituzten Bergarako brigadako langileek eta tokiz aldatu zituzten. Azokako atariko alboetara eraman zituzten.

Obra eta Zerbitzuak Departamentutik jakinarazi dutenez, "lehenengo tokia behin behinekoa zen. Urria partean jarri genituen, kilometroen jaialdiarekin batera, han gurgil-aulkiei eta umeen aulkiei bidea ez ixteko. Orain bere tokian daude".

Lorontziak zeuden tokian zutoinak jartzeko asmoa dago. Eguen goizean bertan zuloak egiten ibili ziren brigadakoak. Datozen egunetan lau zutoin jarri gura dira. Modu horretan, ezin izango da han aparkatu.

AZOKA > MAKINA-ERREMINTAREN BIURTEKOA

Debagoieneko hamabi enpresa BECeko azokan, gaurtik

Erakustazokak dituen sei pabilioietan 788 stand jarri dituzte; 38 herrialdetako 1.761 enpresendako tokia egokitu dute Barakaldon

MIREIA BIKUÑA > BERGARA

Juan Jose Ibarretxe Lehendakariak gaur zabalduko du, 11:30ean Makina-erremintaren Biurtekoa, Barakaldoko BECen. Guztira, 36 herrialdetako 1.761 enpresa egongo dira zapatura arte erakustazokako sei pabilioietan jarrita dauden 788 erakusmahaietan banatuta. Era berean, enpresak sei sektoretan banatuko dira: makina-erreminta; beste makina batzuk (soldadura, ebaketa eta azalen tratamendua); erreminta;

piezak, osagaiak eta hornigaiak; ekoizpen-sisteman automatizazio, metrologia eta kalitate-kontrola; eta, azkenik, zerbitzuak.

BAILARAKOAK, HAMABI

Azokan parte hartuko duten enpresen artean, bailarako hamabi egongo dira (ikus ondoko taula): Bergarako sei, Arrasateko hiru, eta Antzuolako, Elgetako eta Aretxabetako enpresa bana. Bakoitzak dagokion sektoreko azken nobedadeak erakutsiko ditu Barakaldoko azokan.

2006AN BAINO IKUSLE GEHIAGO

Makina-erremintaren Biurtekoak 25 urte bete ditu, eta antolatzaileen ustez "urteurrenarekin etapa historiko bat ixten da".

Zapatura arte luzatuko den azokan parte hartzeko 57.300 profesionalek eman dute izena, duela bi urte baino 7.300 lagun gehiagok. Era berean, Lanbide Hezi-



AZOKAN Irudian, Fagor Automatiok orain dela bi urte erakutsitako stand.

GOIENKARIA

ketako eta Unibertsitateko 7.000 ikasle baino gehiago joango dira BECera. Sektoreak bizi duen "sasoi onak" makina-erremintaren azokaren oihartzuna zabaltea espero dute antolatzaileek, duela bi urte sektorea oraindik "herren" zebilen-eta.

Bestalde, egubakoitzean, azokari bukaera emateko Makina-erremintaren Sari Nazionala banatuko da. BAI Berrikuntza Agentziak antolatzen duen sariak diseinuaren bidez berritzeko gaitasuna duten enpresak saritzen ditu.

Bailarako enpresak, BECeko azokan

HERRIA	ENPRESA
Antzuola	Oerlikon Balzers-Elay Coatin S.A
Aretxabaleta	Mondragon Sistemas de Informatica
Arrasate	Fagor Automation S.D.A.D
Arrasate	Fagor Arrasate S.D.A.D COOP
Arrasate	Lineas Automaticas S.A
Bergara	Filtroman
Bergara	Grupo TTT TIS
Bergara	Orni S.L
Bergara	Sitalu 2001 S.L
Bergara	Soraluce S. Coop.
Bergara	Tecnologia y sistemas Pari Edu S.L
Elgeta	Sisteco Maquina Herramienta S.L

EUSKARA > SALAKETA

Umeak euskaraz erregistratzeko eskubideaz galdetuko dio Aralarrek Joseba Azkarragari

Mistoa-Aralar taldeak hainbat galdera egingo dizkio sailburuari haurrak euskaraz erregistratzeko dauden arazoak ikusita

M.B. > BERGARA

Hizkuntza Eskubideen Behatokiak haurrak euskaraz erregistratzeko dauden arazoak salatu ditu asteon. "Erregistro liburu ofizialak katalanez eta galegoz daude, baina ez euskaraz", azaldu du Behatokiak: "Hortaz, prozesua asko atzeratzen da".

Horren aurrean, Mistoa-Aralar taldeko legebiltzarkide Aintzane Ezenarrok "umeak euskaraz erregistratzeko eskubidea zergatik ez dagoen bermatuta" galdetuko dio Justizia sailburu Joseba Azkarragari. Interpelazioa eran aurkeztu ditu Mistoa-Aralar taldeak galderok, Justizia sailburuak osoko bilkuran erantzun ditzan.



LEHENA Etxahun Iturriotz Arando, euskaraz erregistratutako lehen umea. GOIENKARIA

LEHEN UMEA ARETXABALETAN

Etxahun Iturriotz Arando aretxabaletarra izan zen euskaraz erregistratutako lehen umea, 2007ko abenduaren 19an, hain justu ere. Orduetik hona asko izan dira

Behatokiak jo dutenak euren semeak euskaraz inskribatzeko helburuarekin. Baina, behin eta berri, oztopo eta eragozpen berdinak topatzen dituzte umeen gurasoek.



Irudian, Zurraderon su hartu zuen garajea.

MIRIAN BITERI

BERGARA > ZURRADERO KALEAN

Auto batek eragindako sutea ostiralean Bergaran

Zubillagako suhiltzaileek hiru orduz jardun zuten sutea kontrolatzen

batek eraginda. Zubillagako suhiltzaileek hiru orduz jardun zuten sutea kontrolatzen. Sortutako ke handiak suhiltzaileen lana oztopatu zuen. Suhiltzaileen lau kamioi izan ziren lanean eta Tolosako suhiltzaileen parketik haizagailuak ekarri behar izan zituzten ke-lainoa gutxitzeko. Goizeko 10:30ak aldera jabeek garajetara jotzeko aukera izan zuten berriro. Dirudenez, auto baten kortozirkuitu batek eragin zuen sutea. Gainerako garajeek ez zuten kalte larririk jaso.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Egubakoitz goizean sutea izan zen Bergarako garaje baten, Zurradero kalean. Ertzaintzak emandako informazioaren arabera, sutea 07:00etan hasi zen garajeko bigarren solairuan, bertan aparkatuta zegoen auto

ARRASATE > MERKEALDI AZOKA

Hiru mila bisitari inguru Merkemerkauban

Eguraldiak ez zuen lagundu erosleak erakartzeko, baina dendariak pozik dira

Antolatzaileek 1.000 euro zozketatu zituzten eta saridunak Aretxabaleta eta Arrasatekoak dira

EDU MENDIBIL > ARRASATE

Xanpainarekin ospatu zuten atzo iluntzean dendariak eta Arrasateko Udaleko ordezkariak Merkemerkaubak jasotako harrera. Antolatzaileek emandako datuen arabera, zapatu eta domekan 18 urtetik gorako 3.000 bisitari inguru izan zituzten. Eguraldi onak

ez zuen lagundu erosleak erakartzeko, baina dendariak pozik ziren egindako salmentekin. Iaz bisitari gehiago egon arren, salmentak ez ziren aurtengoak baino handiagoak izan.

Uarkape pilotalekuan zabalduko Merkemerkauban Arrasateko 23 dendak hartu dute parte,



AZOKA Uarkape merkealdien azoka izan da aste bukaeran.

JOSETXO ARANTZABAL.

eta azoka eten barik egon da zabalik zapatuan eta domekan, 10:30etik 21:00etara. Nobedade gisa, euro bateko sarrera kobratu dute aurtun eta neska-mutikoei zuzendutako ludoteka zabaldu dute. Txatxilipurdiko begiraleak izan dira han lanean, nagusiek erosketak egiten zituzten bitar-

tean. Bestalde, antolatzaileek 1.000 euro zozketatu zituzten eta hauek izan dira irabazleak: Azucena Del Palacio arrasatearra (500 euroko erosketa-txeke jaso du); Jaione Nuñez arrasatearra (300 euro) eta Francisco Jose Martinez aretxabaletarra (200 euro).

BERGARA

Egileor bertsolari ezaguna hil da

Haren aldeko hileta-elizkizuna izango da gaur, Santa Marinaran

E.M. > BERGARA

Jesus Alberdi *Egileor* bertsolaria hil zen atzo Bergaran, 77 urte zituela, bihotzekoak jota. Elosu auzoko Egileor baserrian jaio zen 1931ko urtarriaren 5ean. Bergaran bizi zen aspaldi, eta denboraldi luzeak egiten zituen baserrian.


Ahots berezia zuen bertsolaria, hiztun ona, umore onekoa eta jendearekin berrikeria egitea gustatzen zuena. Haren eta haren kantatu zituen bertsoak 1950etik; San Martzialgo erromerian ez zuen hutsik egiten. Urtean 80 saio egitera iritsi zen. Bertsolaritzan, Lizasok, Lazkanok, Agirrek eta Gorrotxategik asko lagundu ziotela esaten zuen. *Egileor*-en aldeko hileta-elizkizuna gaur, astelehena, izango da, Santa Marina parrokiaren, 19:00etan.

Jesus Atxa aretxabaletarra omendu du Euskaltzaindiak

Euskaltzaindiak Jose Manuel Lasarte eta Jesus Atxa euskaltzainak omendu zituen egubakoitz arratsaldean, Bilbon. Atxaren (1920-2007) ohorezko euskaltzain aretxabaletarraren hilberri-txostena Jose Luis Lizundia euskaltzain osoak irakurri zuen. Haren hitzetan, "Nafarroako norbaiti dagokio Atxak herrialde horretan euskalgintzan egindakoa jasotzea". 1960an erabat murgildu zen Atxa ikastolen mugimenduan. Nafarroan lan nabarmena egin zuen eta 1970ean San Fermin Ikastolako zuzendari izendatu zuten. Iruñean hil zen, joan den urriaren 23an.



EUSKALTZAINDIA



Jesus Alberdi, *Egileor*.

ARTXIBOA



Erosten jakin:
ZURE FAMILIARENTZAT ONENA AUKERATU

 **EROSKI**
Erosten jakin

Lara Santamaria pertsona nagusien zaintzan lan egiten duen psikologoa da. Eibarko zentro gerontologikoan lana egiteaz gain, Bergarako Mizpirualde egoitzan eta eguneko zentroan ere badihar-
du. Datorren martxoaren 3an, Nagusilan elkarteak eta Bizikantik antolatuta, hitzaldia emango du Miguel Altuna Institutuan. Pertsona nagusiak eta horien zaintza da hitzaldiko gaia.

Lara Santamaria > Psikologoa

"Pertsona nagusien familiak errekurtsu sozialez hornitzen jarraitu beharra dago"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Lara Santamaria psikologoa da eta Eibarko zentro gerontologikoan pertsona nagusiekin lan egiten du, terapeuta moduan. Horretaz gain, Bergarako Mizpirualde egoitzan eta eguneko zentroan dihardu. Donostiako Lahar (Eskuhartze Psikosozialerako Elkartea) elkarteko kide ere bada. Martxoaren 3an, gizarteak eta familiak pertsona nagusiei laguntzeko moduen gaineko hitzaldia egingo du Miguel Altuna Institutuan.

Geror eta urte gehiago bizi gara Zeintzuk dira arazoak?

Egia da geror eta urte gehiago bizi garela. Gure bizi-itxaropena handitu da, eta oker ez banago gaur egun gizonen batzuetan besteko bizi itxaropena 77 urtekoa da, emakumezkoena berriz, 83 urtekoa. Bistakoa da egun errekurtsu sanitarioak asko hobetu direla. Geror eta aurrerapen mediko gehiago dago eta horren ondorioz, gizakiak lehen gaingaitzak ezin zitezkeen gaitasunak gaingaitzak ditzake orain. Beraz, egungo pertsona nagusiek, osasun hobea dute; bizi-itxaropena handiago da eta euren bizi kalitatea ere bai.

Gehiago bizitzeak luzera osasun arazo gehiago dakar eta ondorioz dependentzia handiagoa?

Logikoki, urte gehiago bizitzeak dependentzia duten pertsonak geror eta gehiago izatea bultzatzen du; hau da, eguneroko aktibitateak gauzatzeko laguntza behar duten pertsonen kopurua handiagoa da.

Urte batzuen buruan arazo bat izango da nagusien kopuru altu hori? Dagoeneko bada? Zein da egoera?

Bataz besteko zehatzik ematerik ez daukat baina egiten diren proiektzio demografikoek, 65 urte-rik gorako pertsonak biztanleriaren %18 direla diote. 80 urtetik gorako biztanleria berriz, gainontzeko biztanleria baino abiadura handiagoan areagotzen ari da.

Nagusi asko egoteak, horien zaintzara dedikatzen diren profesionalen kopurua gehitzea suposatuko du? Prestatuta dagoen jenderik ba al dago?

Mendearen erdialdean, gazteak baino jende nagusi gehiago egongo dela aurreikusten da. Eta horrek, arazo handia suposatzen du. Biztanleriaren sektore zabal hau behar den bezala zaindua egon dadin, familiak errekurtsu sozialez hornitzen jarraitu beha-



Lara Santamaria, psikologoa eta Lahar elkarteko kidea da.

GOIENKARIA

rra dago, batez ere pertsona nagusiaren zaintzaile nagusiak direnak. Jarraitu behar da baita ere zaharren egoitzak eta eguneko zentroak sortzen, eta beharrezkoa da baita ere, profesional kualifikatuak gehitzea.

Nagusiekin familian lan egiten kontzientziatu behar dugu?

Zaharren egoitzetako, eguneko zentrotako eta nagusien zaintzara dedikatzen diren erakunde guztietako langileak, profesional kualifikatuak dira. Bestalde, denok dakigu familiak kontratatutako eta etxeko nagusiaren zaintzara edo laguntzara dedikatzen diren bestelako profesionalak ere badirela. Boluntarioak bezala, uste dut pertsona horiek ere, nagusien zaintzaren gaineko gaiak tratatzen diren kurtsoetan hezi behar direla. Zaintza horretan, familia da, eta etorkizunean ere izango da, lehenengo euskarrria eta gainera garrantzitsuena. Horregatik, laguntza eta sostengua eman behar zaio familiari, nagusien zaintzak,

ADMINISTRAZIOA

"Administrazioaren lana koordinazio sozio sanitario batera bideratu beharko litzateke"

ETORKIZUNA

"Mendearen erdialdean, gazteak baino jende nagusi gehiago egongo dela aurreikusten da"

SARE SOZIALA

"Sare soziala pertsonen arteko erlazioek osatzen dute; nagusiarentzat, haren familiak, lagunek, bizilagunek..."

karga fisiko eta emozional handia suposatu ez dezan. Familiaren kolaborazioa beharrezkoa da.

Nagusi gehiago bai, baina bakarrik bizi diren nagusien kopurua ere geror eta handiagoa da, ezta? Hori ere arazo bat da?

Bai, dudarik gabe. Bakarrik bizi den geror eta jende edadetu gehiago dago. Egia da bizitza autonomo bat egin ahal izatea dela pertsona nagusien nahia. Baina egia da baita ere, urteak aurrera doazen heinean bakarrik bizitzeak arriskuak sortzen dituela; erorketak, bestelako deskuiduak... Bakarrik bizi diren pertsona nagusien %80a emakumezkoa da.

Zein izan daiteke bakarrik bizi diren pertsonen zaintza bermatzeko modua?

Gizarteak eskaintzen dituen errekurtsuak erabiltzea beharrezkoa da; tele-alarma adibidez, telefonogunearekin berehalakoan kontaktatzeko bidea ematen du;

horrek lasaitasuna ematen die nagusiei. Egunerokoan, etxean bertan laguntza edukitzeko bideak ere badituzte.

Sare sozial bat sortzea beharrezkoa dela diozue. Zer da sare sozial deritzon hori?

Sare soziala nagusiek euren inguruan dauden pertsonekin dituzten erlazioek osatzen dute; familiak, lagunak, bizilagunak, boluntarioak... dira sare sozialaren oinarri. Sare sozial horrek laguntza emozionala, instrumentala edo beharrezko duten informazio guztia proportzionatzen du.

Nola gauzatu litzateke? Zein helburu izango litzateke?

Sare sozialean oinarri garrantzitsuena nagusiaren familia da. Nagusien beharrak ondoen asetzen dituen da. Pertsona nagusientzat sare sozialak zera suposatzen du: komunitateko parte dela sentiaraztea, arazoei aurre egiteko moduan laguntzea, autoestimua hobetzea...

oharrak eta deialdiak

ARRASATE

> Hainbat mobilizazio ezker abertzaleak

Ezker abertzaleak honako ekintzak antolatu ditu: gaur, astelehena, prentsaurrekoa Kulturaten, 18:30ean, eta Loiolako Negoziazioari buruzko azalpena, 19:00etan; eguenean, agerraldia Seber Altubetik, 19:30ean; eta egubakoitzean, kalejira Seber Altubetik, 19:00etan.

OÑATI

> Mobilizazio eta Independentzia Egunak

Ezker abertzaleak deituta, eguenean Mobilizazio Eguna egingo dute: Herriko Plazan elkarretaratzea egingo dute 19:00etan. Egubakoitzean, Independentzia Eguna ospatuko dute: ekitaldia egingo dute plazan, 20:00etan, eta bertso afaria segidan Arrano elkartearen.

ESKORIATZA

> Bertso afarirako txartelak salgai daude

Ainhua Agirreazaldegi eta Amaia Agirre bertsolariekin afaria izango da egubakoitzean, hilak 7, Egokiena elkartearen, eta txartelak salgai daude 15 eurotan Inkernun eta Aldatzen.

ESKORIATZA

> Huheziren Komunikaldiak jardunaldia

Huheziko Ikusentzunezko Komunikazioko lehen promozioa kaleratuko da. Hori dela eta, etorkizuneko komu-

nikatzaileetaz jardungo dute Komunikaldietan. Mahai-inguruak eta hitzaldiak egongo dira. Izenematea gaur, astelehena, ixten da, eta *sarrra@huhezi.edu* helbidea egin daiteke. 25 euro da, doan ikasle eta langabeendako. Martxoaren 5ean izango da jardunaldia.

ARRASATE

> Ekialdeko eta Mendebaldeko masajeak

Ekialdeko eta Mendebaldeko masaje ikastaroa emango du Jose Luis Abuinek, Musakolako kiroldegian. Izenematea zabalik dago 943 77 01 33 telefonoan. Izena ematen dutenen artean erabakiko dute eguna eta ordua.

BERGARA

> Hainbat ikastaro antolatatu ditu Udalak

Sendabelarren, areto dantzen eta sukaldaritza begetariano eta nutrizioaren gaineko

ikastaroak antolatu ditu Udala Kultur Zerbitzuak. Izenematea zabalik dago kultura etxean. Argibideak: 943 77 91 59.

BERGARA

> Udalekuetarako begiraleak behar dituzte

Bergarako Udalekuan parte hartu nahi duten begiraleentzat izena emateko epea martxoaren 5etik 28ra bitartean egongo da zabalik ludotekan, 17:00etatik 19:30era bitartean.

BERGARA

> Gazteen arteko topaketetan izenematea

Gazte topaketak antolatu ditu Udalak, 12-16 urte arteko ume eta gaztetxoendako. Apirilko egubakoitzean izango dira jardunaldiak, eta grafitiak, afari-merienda, patinajea, argazki-rallya... egingo dituzte. Izenematea epea zabalik dago martxoaren 13ra arte, norbere ikastetxean.

ELGETA

> Mahai-jokoak izango dira erretiratuendako

Elgetako Erretiratu Elkarteak mahai-jokoak antolatu ditu etzirako, eguaztena. Hain zuzen, briskan, musean eta tutean ibiliko dira 16:00etan hasita. Parte hartu nahi dutenek Ozkarbi Elkartera joan besterik ez dute esandako egun eta orduan.

DEBAGOIENA

> Mendekotasuna dutenak zaintzen ikasteko

Mendekotasuna duten pertsona nagusiak hobeto zaintzeko ikastaroa antolatu du Bizikasik. Bihar, martitzena, hasten da, eta gaur bukatzen da izenematea epea, 943 76 93 94 zenbakian.

DEBAGOIENA

> Asteburuetako irteerak gazteendako

Manuel Larramendi Kultur Bazkunak Euskal Herrian Barrena delako programa berri eta martxan jarri du berriz. 18-30 urte arteko gazteek irteerak egiteko aukera izango dute. Informazioa: 943 69 64 50.

BERGARA

> Gizarteak nagusiei laguntzearen garrantziaz

Gizarteak nagusiei laguntzearen garrantzia azalduko dute Bizikasik eta Bergarako Nagusilaneak gaur, astelehena, Miguel Altunan, 19:00etan.

etxeke leihotik



Usoa Agirre > Goienako Telematika arduraduna

Pilotaren alde lanean eta herriko giroa piztuz

Trukean ezer eskatu gabe lan egin eta egiten duen jende asko dago gure inguruan. Horren adibide dira herri askotan sortu diren elkarte ezberdinak: kultur elkarteak, gazte taldeak, emakume taldeak, euskara elkarteak, gobernuz kanpoko taldeak, kirol elkarteak... Esango nuke elkarte eta talde horiek pizten dutela herri bateko giroa. Elkartearen elkarrekin, harremanak sendotu, ekintzak antolatu, herriko aisialdi eskaintza gehitu eta herriari nortasuna ematen diote.

Antzuolan kirol talde bat sortu eta horretan lan egin zutenak eta oraindik ere dihardutenak omendu zituzten zapatuan. Duela 30 urte sortu zuten Olalde elkarte pilotasaila. Urte hauten guztietan egindako lanagatik Olalde elkartearen beraren, Antzuolako Udalaren eta herritarren omenaldia jaso zuten saileko kideek. Omenaldi polita izan zen; Antzuolaren izena Euskal Herrian zehar zabalduta dute herritarren pilota partidua, ekitaldi xume bat eta afari-merienda, elkarren arteko harremanak gehiago sendotzeko.

Zorionak, beraz, omenduoi eta modu batera edo bestera pilota sailean aritu zareten guztioi!

"Aisialdi eskaintza gehitu eta herriari nortasuna ematen diote elkarteek"

> Erreleboa. Hemen omenduetako baten enkargua: "zaharrok erretiratzeko gogoak daukagu eta gazteak behar ditugu pilota sailean lanean jarrai dezaten". Herriko pilota bultzatu nahi duzuenok zabalik dituzue ateak.

> Argia. Elkarte baten lanean diharduenak ondo daki denean moduan argi eta ilunak daudela. Zapatuan ere izan zen horrelakorik; momentu batez ilunduta egon zen pilotalekua, baina argia gailendu zen azkenean!

debagoiendarrak kanpoan

June Eguren > Arrasate

"Hendaian ordutegi 'europarra' dute: bederatzietan ez da autorik ikusten"

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

June Eguren arrasatearra da eta 30 urte ditu. Badira bi urte, Hendaian bizi dela, baina Bidasoako bailaran luzaroago bizi da, izan ere, horren aurretik, lau urte eman zituen Irunen.

Zelatan joan zinen Irunera eta gero Hendaia bizi izatera?

Hortz-protetikoa naiz, eta hemen, Debagoiengan, arlo horretan lana topatzeko zailtasun handiagoak zeuden. Irunen mutil-laguna nuen, eta Donostia inguruan lan aukera hobekien zegoen, hara joatea erabaki nuen; lehenengo Irunera joan nintzen, eta gero, Hendaia.

Hendaian bizi den jende asko bezala, mugaz gaindiko langilea naiz: bizilekua Hendaian dut,

eta lana, Donostialdean. **Zeintzuk dira Arrasate eta Hendaian arteko desberdintasun handienak?**

Debagoiena industriari lotuta dago; Irun eta Hendaia lasaigoak dira, eta zerbitzu eta turismora... gehiago begira daudela ere igarri dut.

Jendea bizitzeko modua ere desberdina da zertxobait, ezta?

Bai, hala da; izan ere, Hendaian, bizimodua ordutegi europarraren inguruan egiten dute, hau da, goizeko zortziak inguruan jaikitzen dira, gaueko bederatzietan dagoeneko ez da kalean autorik ikusten, goiz etxeratzten dira...

Ni aurretik Irlandan eta egoz nintzen, ez zitzaidan hain



LEIRE KORTABARRIA

Arrasatearra Hendaian
June Eguren hortz-protetikoa ikasketak egin zituen eta Bidasoa aldera joan zen lan bila; Hendaian bizi da egun.

gogorra egin, baina kalean ibiltzea gustatzen zaionari zaila egin dakioke horretara ohitzea.

Zer da Hendaian gehien gustatzen zaizuna?

Asko gustatzen zait hementxe badiatik paseatzea. Euskal Herriko hondartzarik luzeena du Hendaian, eta handik ibiltzea gustuko dut.

Arrasateetik zer igartzen duzu faltan?

Dagoen gizarte mugimendua, bi aldetik begiratuta: kaleko mugimendua eta gizarte eragilearen jardura.

Sarri etortzen zara?

Ez, Arrasatera oso gutxitan etortzen naiz. Azken baten, bizimodua orain Hendaian daukat,

eta urruti samar dago sarritan joan-etorrian ibiltzeko; nagiekia eragiten dit, egia esan.

Hala ere, koardila badaukat oraindik Arrasaten, eta eurekin kontaktuari eusten diot.

Udan, Hendaia ingurua jendez betetzen da. Zu ere han gertatzen zara orduan?

Abuztua oso gogaikarria egiten zait han gertatzeko, inoiz baino biztanle gehiago egoten delako. Gurago izaten ditut urteko gainerako sasoiak.

Hendaia joaten den arrasatearra bati zer egitea gomendatuko zenioke?

Lapurdi guztia da polita, bai kosta, bai barrualdea. Bidasoa bailarak ere hondartza eta mendia batzen ditu; inguru ederra da.

kale inkesta

Azkenaldian daukagun eguraldi ez ohiko honek osasunean eragiten al dizu?



Itziar Ibarra
Etxekoandrea
Bergara

Bai asko gainera. Ez da normala egun baten 20 gradu egin eta beste egun batean bi. Eguraldia zoratuta dabil eta hezurretan asko nabaritzen dut. Gainera gorputza nekatuago dago eta katarroak ugaritu egin dira.



Maite Suinaga
Etxekoandrea
Bergara

Halako eguraldia arriskutsua da osasunarentzat. Berotik bat bateko hotzera pasatzeak katarroak eragiten ditu. Nire bilobarengan eragina du eguraldiak. Kaleak ere polena dela eta gehiago garbitu behar lituzkete.



Pili Ortiz de Zarate
Langilea
Bergara

Asteotako eguraldiaren eragina nabaritu dut, katarroa eduki baitut. Hezurretako mina agertzen da halako eguraldiekin. Nire familian ere igarri dute eguraldi aldaketaren eragina. Osasunarentzat ez da ona.



Iñaki Gantxegi
Langilea
Bergara

Eguraldi honek osasunean eragina izaten du. Ni renitisarekin nabil egunotan. Ea eguraldiak aldatzen duen, eta elur edo euri pixka bat egiten duen, osasunak asko igartzeko baititu halako eguraldi aldaketak eta.

irakurlearen txokoa

943 25 05 05
goienkaria@goiena.com

ARRASATE

> Mojatetik taberna, eskasa

Mondraren partidutara joaten den futbolzale batek posta elektronikoa bidai digu. Mojatetik kirol instalakuntza berriak beneratu ondo daudela dio. Baina taberna egokiago baten beharra ikusten du, Mondraren partiduetan txozna moduko bat jartzen dute eta.

BERGARA

> Ozaetako zubiko pasabidea, estuagoa

Irakurle batek deitu digu Ozaetako zubiaren gainean galdezko. Lasa jatearean ondoan dago aipatutako zubia. Piboteak jarri zituzten bertan, oinezkoendako pasabidea errazteko. Hala ere, deitu duen emakumeak esan digunez, oinezkoendako pasabidea oso estua da eta ezin du bertatik pasatu umeen karroarekin joanez gero. Udaleko arduradunei pasabidea zabaltzeko eskatu nahi die.

OÑATI

> Polenarekin eta euriarekin, kaleak irristakorrak

Egunotan dugun eguraldiak eraginda, polen gehiago dago eta hori nabaria da autoetan eta herriko kaleetan. Oñatiko gizon batek esan digunez, polena euriarekin nahastean, kaleak-eta irristakorrak daude. Hori dela eta Udalak kaleak gehiago garbitzeko ahalgina egin beharko lukeela uste du berak. Hortxe bere eskaera kale garbitzaileei eta zerbitzu horren ardura dutenei.

usteak uste

Txomin Madina

Kirolari buruz...

Bai, aitortzen dut. Kirola ez zait batere gustatzen. Ez egitea eta ezta ikustea ere. Ez txikitzen eta ez orain.

Zapatuan baina, zerbait berezia gertatu zitzaidan. Bergaran nengoen eskola kirolen inguruko albistea lantzen. Izan ere, zerbait ez gustatzeak ez du esan nahi horri buruz idatzi behar ez dudunik. Gaztetxoak herri kirolatan zebiltzan: sokatiran, lokotxak batzen, txinga jasotzen. Neska mutikoen aurpegiak urduritasuna, probak egiteko gogoa, galdu ala irabazi ondo pasatzeko nahia ikustek zirrara berezia eragin zidan.

Pena da gero gauean, lagunekin afaltzen nengoela tabernako telebistan ligako futbol partida ikusita, goizeko zirrara guztiz desagertu izana. Zergatik ote?

zorroztailea



Elena Laka

Melhor fado não terá

“Sharon Stonek, 50 urte betetzear dagoenak, duela 15 urteko *Ins-tinto básico* hartako gaiztoak bezain gaztea ematen du. Berdin Kim Bassinger ederrak, 54 urterekin (...). Beste edozein merezimenduren gainetik, gaztetasuna lortzeko miraria lortu dutela azpimarratzen da. Adin helduko emakumeentzat presio bilakatu dira” El País > 2008-03-02



Egunkariak hauteskunde-kanpainaz beteta daude, hemengo ekitaldia, hango debatea, toki guztietako ego-puztea (onenak gara), ondokoentzako mespretxua (besteek gaizki egingo dute), berriketaren zarata baino ez da ikusten. Kalea ere politika giroaz josita dago, zakarrontziak paretetako karteletan, oldartzeko moduez inguratuta gaude. Egunkari eta kaleko paisaiari erreparaturuz gero, irudiko luke politika eta hauteskundeak direla herri-tarron burua bueltaka ipintzen duena.

Baina badaude herrietan bertan beste toki batzuk, non politika existitzen ez den, non herritarren kezka erabat bestelakoak diren, herriaren eskizofrenia (ala osasun ona) islatzen dutenak: bidai-agentziak eta edertze-aretoak. Lehenengoak lepo daude, nekeza garai honetan Aste Santuko oporretara joateko txartel bat topatzea. Edertze-aretoak, sotilagoak dira oraindik, sekula ez delako jende asko ikusten barruan, baina sinistu, bertako erabiltzaile guztiek hauteskundeetan botua emango balute, porrota galanta abstentzioaren aldekoa.

Topikoa da gure gizartean irudiak duen garrantzia azpimarratzea. Denoi ez dut esango, baina gehienoi kezkatzen gaitu irudiak. Lehen emakumeoi bakarrik, orain gizonei ere bai. Eta kezka nagusien artean dugunez, irudiak denbora eta dirua gastatzeko prest gauzka. Gorputz eta arpegirako tratamenduak, beltzaran ipintzeko bideak, guapo, dotore eta, ahal bada, gazte egotea da jende askoren helburu (ez dut esango bakarrik) urte sasoi honetan.

Irudi-kanpainak baina ez gaitzala engaina. Demi Moorek erakusleho horretatik kremak saldu nahi dizkigunean, Monica Beluccik standetik sensualki makillatzera gonbidatzen gaituenean, hauteskundeetako eskaintzak bezain faltsuak dira. Eskaintza ederragoak, bai, baina ez erreagoak.

Zeren edertasunaren kontu honetan (eta ez dakit politikaren kontu honetan ez ote den ala izango) plaentxiarrek zapatuan Elgetan kantatu zuten fadoak dioen moduan, “todos temos nosso fado e o que nasce mal fadado melhor fado não terá”. Daukaguna daukagu, eta hoberik, ba, ez dut uste edukiko dugunik.

"Gehienoi kezkatzen gaitu irudiak, gizonei ere bai"

"Kremak hauteskundeetako emaitzak bezain faltsuak dira"

Goienkaria

Argiraraztailea Goiena Komunikazio Zerbitzuak Kooperatiba Elkarteak • Nafarroa etorbidea 2 • 20500 ARRASATE
Lehendakaria Estepan Plazaola Zuzendari nagusia Inazio Arregi

Zuzendaria Eneko Azkarate Erredaktore burua Edu Mendibil Erredaktorea Xabi Urtzelai, Jasone Zabala eta Txomin Madina Oinarritzko diseinua Golo Arana Diseinu arduraduna Alex Azkarate Maketazioa Kepa Martelo Publizitate arduraduna Mireia Larrañaga Harpidetza eta banaketa Marta Leturia Administrazio arduraduna Agurtzane Gaintzarain

EGOITZA NAGUSIA
BERGARA 20570 Barrenkalea 33 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: goienkaria@goiena.com

ORDEZKARITZAK
ARRASATE 20500 Otarora Lizentziaduna 31 • 132 posta-kutxa • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 12
Posta-e: arrasate@goiena.com

ARETXABALETA 20550 Durana 11 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxabaleta@goiena.com

Publizitatea Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 25 05 05 • Faxa: 943 25 05 09
Posta-e: publi@goiena.com

Harpidetza Arrasate 20500 Nafarroa etorbidea 2 • Tel.: 943 08 10 50 • Posta-e: harpidetza@goiena.com

Lege Gordailua: SS-0088/04 • ISSN: 1697 3542 • Tirada: 5.000 ale



ASTELEHENKO GOIENKARIA ez du bere gain hartzen IRTZIA orrialdean, edo kolaboratzaileek adierazitako iritzien erantzukizunik.

Gipuzkoako Foru Aldundiak diruz lagundutako aldizkaria



Gipuzkoako
Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak
diruz lagundutako aldizkaria

Herriak

Arrasate > 10 Bergara > 11 Oñati > 12 Aretxabaleta > 13 Eskoriatza > 13
Antzuola > 14 Aramaio > 14 Elgeta > 14 Leintz Gatzaga > 14



> **ARRASATE**
Jende ugari elkartu zen zapatuan Biona taberna historikoa agurtzeko jaian > 10



> **BERGARA**
12 eta 16 urte bitarteko gaztetxoei zuzendutako topaketak egingo dituzte apirilean > 11



> **OÑATI**
Aloña Mendiko txirrindularitza sailean 29 ziklista ibiliko dira aurtengo denboraldian > 12

OÑATI > KIROLDEGIA

Martxoan hasiko dira kiroldegiko kantxa berriaren hobekuntza lanak

HORMA JAITSI

Kantxa berriko harmailako horma baten altuera jaitsiko dute

AURREKONTUA

Kantxa berriko hobekuntza lan hauen aurrekontua 20.000 eurokoa izango da

JASONE ZABALA > OÑATI

Pasa den urrian zabaldu zuten Oñatiko Zubikoa kiroldegian beste eraikin bat kantxa berri batekin, kantxa urdinarekin. Kantxa bakarra ez zen nahikoa herriko kirol ekintza guztiendako eta beste kantxa bat egitea erabaki zuten.

Behin lanak amaituta kiroldegia erabiltzaileek hainbat akats antzeman dituzte, horien artean kantxa urdineko ikusle-harmailari dagokiona da. Partiduak ikustera joaten direnendako harmailako hormak altuera handiegia du, 1,10 zentimetrokoa hain justu. Horregatik, altuera hori 70 zentimetro-ra jaitsiko dute eta ondoren baranda bikoitza ipiniko dute. Lanok, kantxa urdineko markagailuaren pareko horman egingo dira. Horrela, haur eta elbarrituentzat ahalbidetuko dute kantxako harmailako alde hori, partiduak hobeto ikus ditzaten.

LANAK MARTXORAKO

Angel Biain Oñatiko Hirigintza zinegotziaren hitzetan, "lanak martxoaren 10ean hasiko dituzte eta guztiz amaituta apirilko lehen asterako egongo dira". Bederatzi bat egunetan kantxa itxita egongo da eta beraz ezin izango da erabili.

Aste Santuan kiroldegia itxita egongo da. Pazko astean lanekin jarraituko dute, baina ordu-rako kantxa zabalik egongo da jendearendako, nahiz eta langileek oraindik ere lan hauen azken ukituak ematen ibiliko diren.



HARMAILAKO HORMA Markagailuaren parean dagoen horman egingo dituzte hobekuntzak.

JOSETXO ARANTZABAL

Aurrekontua 20.000 euro ingurukoa da, eta lanekin, kantxa berriko erosotasuna eta segurtatea bermatu nahi da. Gerardo Eskarza Oñatiko kirol teknika-

riak zera adierazi digu: "lanok eragina izango dute martxoaren 10etik 18ra eskolatik kiroldegira joaten diren ikasleengan eta Aloña Mendiko egiten dituen entrena-

mentuetan, baina tartean jai egunak ere badaudenez, eragina ez da hain handia izango". Behin lanok amaitutakoan, Udalaren asmoa beste bi hobekuntza gehia-

go egitea da: batetik, kantxa batetik bestera joateko pasabidean estalkia ipiniko dute, eta bestetik, kantxa urdineko oihartzuna kentzeko lanak.

Kantxa batetik bestera joateko pasabidea eta oihartzun arazoak konpontzeko lanak

Behin Aste Santuan harmailako hobekuntzak egiten dituztenean, badaude beste bi asmo. Lehena, udan egiteko dena: kantxa batetik bestera joateko pasabidea egingo dute. Orain arte pasabide bakarra taberna zen, bai kantxa zaharrera edo eta eraikin berriko kantxara joateko. Horrela, Angel Biainen arabera lanen helburua zera da: kantxatik kantxara joateko zati horretan estalki bat ipintzea euria egiten duenean jende busti ez dadin. Eta horrekin batera tabernatik pasatu gabe jendea harmailetara sartzeko aukera ematea ate berri baten bidez. "Horrela, kantxa bateko zein besteko harmailetara joatea nahi duten ikusleek ez dute tabernara sartu beharrik izango" dio Biainek. Bestetik, aurrerago, kantxa urdineko oihartzuna kentzeko lanak egingo dituzte. Biainen ustez, "partiduak jokatzen direnean jokalariei eta entrenatzaileentzat hainbat akats antzeman dituzte, horien artean kantxa urdineko ikusle-harmailari dagokiona da. Partiduak ikustera joaten direnendako harmailako hormak altuera handiegia du, 1,10 zentimetrokoa hain justu. Horregatik, altuera hori 70 zentimetro-ra jaitsiko dute eta ondoren baranda bikoitza ipiniko dute. Lanok, kantxa urdineko markagailuaren pareko horman egingo dira. Horrela, haur eta elbarrituentzat ahalbidetuko dute kantxako harmailako alde hori, partiduak hobeto ikus ditzaten.



Pasabideko lanak udan egingo dituzte.

JOSETXO ARANTZABAL

ENPLEGUA > UDAL LANPOSTUAK

Lau lan poltsa betetzeko frogak bihar, martitzena, hasiko dira

Liburuzain laguntzaileen lan poltsako frogak bihar egingo ditu Udalak; gero, gizarte langileen, liburuzainen eta kultur laguntzaileen lan poltsak osatzekoak

LEIRE KORTABARRIA > ARRASATE

Udalak lau lan poltsa sortzeko deialdia egin eta oinarri-arauak onartu ditu oraingo astean: liburuzain laguntzaileen lan poltsa, liburuzainen lan poltsa, gizarte langileen lan poltsa kultur laguntzaileen lan poltsa.

Kasu guztietan, lan poltsetan sartzeko interesa dutenek ez dute alde zuzeneko izena eman beharrik izango, baizik eta Udalak zehaztutako egun eta orduetan joan beharko dute udaletxera, dagozkien frogak egitera. Hala, liburuzain laguntzaile izateko frogak martxoaren 4an egingo dituzte, eta gizarte langile izateko frogak, martxoaren 5ean. Hurrengo egunean, liburuzain lan poltsa sortzeko frogak egingo dituzte, eta bukatzeko, martxoaren 12an egingo dituzte kultur laguntzaileen lan poltsa sortzeko frogak. Kasu guztietan, 10:00etan egin dute hitzordua.



LIBURUTEGIA Udal liburuzain eta liburuzain laguntzaileen lan poltsak osatu gura ditu Udalak.

JOSETXO ARANZABAL

BALDINTZAK

Liburuzain laguntzaileen lan poltsako frogak egingo da lehenengo, bihar, martitzena. Batxilergoa, LH II.a edo titulu baliokide bat izan behar dute eskatzaileek, eta 3. Hizkuntza Eskakizunaren parekoa izan behar dute.

Eguaztenean egingo dute gizarte laguntzaile izateko frogak; hor, gizarte langilearen edo gizarte laguntzailearen unibertsitate titulua izan behar dute aurkez-

ten direnek. Hor ere 3. Hizkuntza Eskakizunaren parekoa eskatzen dute.

Eguenean, hilak 6, liburuzainen lan poltsa osatzeko frogak egingo dituzte. Unibertsitateko diploma edo titulu baliokide baten jabe izan behar dute eskatzaileek. Hor ere, eskatutako hizkuntza eskakizuna 3.aren parekoa da.

Azkenik, kultur laguntzaileen lan poltsa osatzeko frogak

egingo dituzte martxoaren 12an. Eskola Graduatua, LH I.a edo baliokidea den titulua eskatzen dute, eta 2. Hizkuntza Eskakizunaren parekoa.

Azterketa horiek ez ditu HAE-Ek egingo, hortaz, ez dute balio ofizialik izango.

Oinarri guztiak jasotzeko aukera dago 943 25 20 00 telefono zenbakian edo www.arrasate-mondragon.org Arrasateko Udalen webgunean.

GARRAIOA

Urbanoan txartel bakarra ipini guran

Udalak Aldundiari galdetuko dizkio txartel bakarra ezartzeko baldintzak

A.G. > ARRASATE

Arrasateko Udalak onartu egin du Gipuzkoako Foru Aldundiari galdetzea herriko autobus urbanoan txartel bakarra ipintzeko zeintzuk izango lirakeen bete beharreko baldintzak; hau da, Arrasateko herri autobusa Lurraldebus zerbitzuan sartzeko baldintzak. Era berean, Lurraldebusen sartzeko dirulaguntzak zeintzuk diren jakiteaz ere arduratuko da Udala. Erabaki hori joan den aste-ko udal batzarrean onartu zuten.

MAKINA BERBERAK

Udal Zerbitzu Saila ardurtzen da urbanoaz eta, bere esanetan, urbanoetako makinak Lurraldebusen erabiltzen dituen berberak dira; hortaz, behar bezala programatzea bakarrik faltako litzateke.

Behin Lurraldebus sistema sartuta, txartel bakarrekin bidaiatzeko aukera legoke: adibidez, autobusa Makatzenan hartu, Garibain jaitsi eta han beste autobus bat hartu Gasteizera joateko.

TABERNAK > BIONAREN AGUR JAIA

Biona azken gaupasaren testigu izan zen zapatuan, 05:30ean itxi zituzten ateak, baina jende asko geratu zen barruan

Bionaren agur jaietan taberna itxi arte ez zen atsedetik egon: musika, aspaldiko lagunak eta malakoak ere izan ziren tartean

A.G. > ARRASATE

Ezin esan Bionak ze orduetan itxi zituen ateak domeka goizaldean. 05:30ak aldera sartu zituzten giltzak lehenengoz sarraillan –txokolate beroa zerbitzatzen hasi eta gutxira–, baina barruan jende mordo geratu zen, eta azkenak irten orduko orduak igaroko ziren.

Arrasateko taberna horrek 53 urtetan bizi izan dituenak eta gero, azken gaua ezin zen gutxiagorako izan. Udalan bazkaldu eta gero, Bionako langileek



GORAINO BETETA Never Surrender taldekoak irudian, Biona zelan egon zen erakusten duen argazkian.

J.A.

18:00etan ireki zituzten ateak –gau zehar lehenagoko langileak ere izan ziren barraren ostean–, eta taberna ireki bezain laster bete zen, goraino, gainera.

Los siete magnificos and friends taldeak gaur egungo batzuk –Never Surrender, Enboskada– eta lehenagokoak –RIPeko Jul eta Txerra– batu

zituen taula gainean. Karaokea ere egin zuten, baina guztiek gura zuten abestu, *Kaos-okea* bilakatu. Emozioz betetako jai izan zen, Bionako azkena.

UDALA

Biteriren omenezko ekintzak, eztabaidagai

L.K. > ARRASATE

Tokiko Gobernu Batzarrak ohiko bilera egingo du gaur, astelehena, 15:00etan. Gaien artean, Kultura, Jai eta Kiroletako Batzordeak Erdi Aroko azoka antolatzeke lehen aurrekontua onartzea proposatuko du. Horrez gain, Pedro Biteriren heriotzaren mendeurrenako eta jaiotzaren 175. urteurrenako ospakizunak antolatzen dabil Udala, eta horien aurre-egitaraua onartzea proposatuko du aipatutako batzorde horrek. Emakume Batzordeak martxoaren 8ko ekintzak ipiniko ditu mahai gainean, eta Garapen Estrategikoaren Batzordeak zaborra murriztearen inguruko kanpaina batez hitz egingo du.

GAZTEAK > TOPAKETAK

Topaketak antolatu dituzte 12 eta 16 urte bitarteko gazteendako, apirilean

Halako tokapetak antolatzen diren lehen aldia da eta apirileko egubakoitzetan egingo dira

Izenematea zabalik dago martxoaren 13a baino lehen, herriko ikastetxeetan

MONIKA BELASTEGI > BERGARA

Udaleko Kultura zerbitzuak gazteen topaketak antolatu ditu apirilerako. Topaketak antolatu ditu Jardun euskara elkartearekin, Udaleko hainbat departamentuarekin, kale hezitzaileekin eta Xipizaro ludotekarekin elkarlanean.

Topaketok herriko edo herrian ikasten duten 12 eta 16 urte bitarteko neska-mutikoei zuzenduta daude, "askotan instituzioek ahaztuta izaten duten adin tartea", Enara Minguez Kultura zinegotziaren esanetan. Minguezek gehitutakoaren arabera, topaketon helburua da "herrian dauden ikastetxetako neska-mutikoen arteko harremana bultzatzea eta aldi berean adin tarte horrengan pentsatutako aisialdi eskaintza helaraztea".

EKITALDIAK APIRILEAN

Gazteen arteko topaketak apirileko lau egubakoitzetan izango dira eta honezkeroko prest dago egitaraua.

Graffiti lehiaketak irekiko du gazteen arteko topaketa, apirilaren 4an, Labegaraietan. Apirilaren 11n, patata tortilla egiten ikasiko dute gazteek gaztetxean, eta gero, merienda egingo dute. Apirilaren 18an, berriz, patinetan ibiltzeko eguna izango da Labegaraietako kanpoko



BULTZATZAILEAK Goiko irudian Udaleko hainbat departamentutako eta Jarduneko ordezkariak.

ANABEL DOMINGUEZ

Egitaraua, eguna-ordua

Apirilaren 4a

17:00 Graffiti eguna, Labegaraietan.

Apirilaren 11

17:00 Patata tortillak egingo dituzte eta gero, afari merienda izango da, gaztetxean.

Apirilaren 18a

17:00 Patinaje eguna, Labegaraietako kanpoko gunean.

Apirilaren 25a

17:00 Argazki rallya, herrian barrena.

gunean eta apirilaren 25ean, argazki rallya izango da, herriko kaleetan barrena.

Sariak ez dira faltako topaketan. Hala, talde irabazleak multiabentura parke batera irteera irabaziko du –maiatzaren 24an–.

IZENEMATEA ZABALIK DAGO

Gazteen arteko topaketan parte hartu nahi dutenek izena eman beharko dute, taldeka –gehienez sei lagun taldeko–. Izena emateko nor bere ikastetxera jo dezake.

Izenematea zabalik egongo da martxoaren 13ra bitartean. Bestalde, antolatzailerak aurreratu dute aurtengo ekitaldiaren erantzuna positiboa baldin bada, datorren urtean ere antolatuko dutela.

ZERBITZUAK > TAXIEN TARIFAK

Aurtengo urterako taxi tarifa berriak onartu zituen udalbatzak osoko bilkuran

Udalbatzak aho batez onartu zituen tarifa berriok; Bergararako ez ezik, Debagoieneko udal guztietarako dira

M.B. > BERGARA

Asteleheneko osoko bilkuran 2008rako taxi tarifak onartu zituen udalbatzak, aho batez.

Hain justu, Agitax elkarteak bidalitako herri barruko taxi zerbitzuen tarifen proposamena da udalbatzak onartu zuena. Tarifa berriak Bergararako ez ezik, ibar osorako balio du.

2008RAKO PREZIOAK

Tarifa arruntari dagokionez –lanegunetan egunez, 07:00etatik 22:00etara bitartean eginda



TAXIAK Bergarako taxilariak Irizar kalean.

GOIENKARIA

ko zerbitzua, honakoa da: 2,97 euro dira bandera jaitsiera; 0,93 euro egindako kilometro bakoitza eta 17,78 itxoite ordua. Gaueko –22:00-07:00 orduetara– zein

domeka eta jai egunetako tarifa berria da: 2,97 euro bandera jaitsiera; 1,48 egindako kilometro bakoitza eta 27,95 itxoite ordua.

> UDALEKUAK

Uztaileko udalekuan begirale izateko izenematea zabaltear du Xipizaro elkarteak

Uztaileko udaleku irekietan begirale izateko izenematea zabaltear dauka Xipizaro elkarteak. Hain justu, martxoaren 5etik 28ra bitartean egongo da zabalik izenematea, Agorrosingo ludotekan, 17:00etatik 19:30era bitartean. Informazio gehiagorako jo ludotekara edo deitu 943 77 70 95 zenbakira.

> IKASTAROA

Eztia dastatzeko doako ikastaroa antolatu du Udalak eta zabalik dago izena emateko epea

Udalak ezta dastatzeko doako ikastaroa antolatu du. Martxoaren 11n izango da, 19:00etan, eta bi ordu iraungo du. Bestalde, hizlaria izango da Gipuzkoako Erlezainen elkarte kide Julian Urkiola. Saiok bi atal izango ditu: teorikoa eta praktikoa. Izena emateko deitu kultura etxera: 943 77 91 59 zenbakia.

> IKASTAROA

Internet ikastaro berria emango dute KZgunean eta interesa duten guztiei irekita dago

Internet ikastaro berria emango dute KZgunean martxo bitartean. Martxoaren 8an hasiko da eta 14ra bitartean luzatuko da, astelehenetik egubakoitzera, 18:00-20:00 orduetara.

Horrez gain, hilaren 5ean sinadura elektronikoen gaineko ikastaroa egongo da 11:00-13:00 orduetara eta hilaren 6an, *Kontsumitzailea sarean* delakoa, 16:00-18:00 orduetara.



AURKEZPENA Argazkian, Aloña Mendiko talde guztietako txirrindulariak, zapatuko aurkezpenean.

JOSETXO ARANZABAL

KIROLAK > AURKEZPENA

Txirrindulari taldeek hasi dute denboraldia

Alebin, infantil, kadete eta gazte mailetakoko taldeak ditu Aloña Mendi txirrindularitza sailak; guztira, 29 txirrindulari ibiliko dira errepideetan

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Aloña Mendi txirrindulari saileko taldeek hasi dute denboraldia. Zapatuan egin zuten taldeen aurkezpena Etxe Aundi jatetxean. "Beste urte batez hementxe gaudela ilusioz beteta", esan zuen aurkezpen ekitaldian txirrindularitza saileko presidente, Pedro Irurtzunek. Talde bakoitzaren argazkia egin ondoren, Aloña Mendiko 29 txirrindulariek, eta aurkezpena joandako lagunak luntxa izan zuten.

Txirrindulari talde guztiek datozen asteotan hasiko dute denboraldi berria.

BIGARREN URTEKO GAZTEAK

Gazte mailako taldearen babeslea Ulma taldea da. Gari Baños, Mikel Lizarralde eta Joseba Luisen aginduetara hamar txirrindulari ibiliko dira: Julen Elkoroiribe, Oier Olalde, Iñaki Igartua, Xabier Arnaiz, Iñaki Madinabeitia, Julen Arkauz, Ander Altube, Unai Barrena, Mikel Iglesias eta Daniel Ramirez. "Gazte mailako taldea ondo ibiliko dela espero dugu, bigarren urteko txirrindulariak dira-eta. Gainera, Xabier Arnaiz Euskadiko selekzioarekin entrenatzen ibili da", esan zuten entrenatzaileek.

Kadete mailan hiru txirrindulari ditu Aloña Mendik, hain zuzen: Aritz Anduaga, Xabier Mugartza eta Aitor Umerez. Hala, Andoni Urteagaren aginduetara entrenatuko dira, Ulmaren lagun-tzarekin.

TXIRRINDULARI ESKOLAKOAK

Txirrindulari eskolako bi taldeak, infantilak eta alebinak, Lizarralde Kirolak dendak babestuko ditu, eta Joseba Itziar da entrenatzailea. Infantil mailakoak dira: Unai rabaolatza, Iñaki Mugartza, Iker Arkauz, Mikel Fernandez eta Aritz Zabaleta. Aldiz, Ion Arkauz, Iker Alberdi, Xabier Aias-tui, Mikel Nieto, Iñigo Madina, Borja Corrales, Xabier Murgiondo, Maider Usandizaga, Christian Martin eta Ekaitz Txintxurreta dira alebin mailakoak.

LEHIAKETA > EPEA ZABALIK DGO

Gazteendako maitasun gutunen lehiaketa deitu du Zu zeu! aisialdirako taldeak

M.B. > OÑATI

Zu zeu! gazte aisialdirako programaren barruan maitasun gutunen II. lehiaketa deitu dute. Hain zuzen, 12 urtetik 16 urte arteko Oñatiko gazteei zuzendutako lehiaketa da.

Lehiaketaren deialdia ahalik eta gazte gehienengana iristeko informazio orriak banatu dituzte hainbat ikastetxeetan, hain zuzen, Errekalde Herri Eskolan, Elkar Hezin eta Txantxiku Ikastolan.

HIRU SARI BANATUKO DIRA

Lehiaketan parte hartzeko baldintzen artean zehazten da gutunak "amodiozkoak, morbosoa edo erotikoa" izan behar direla. Gainera, euskaraz idatzitako gutuna izan behar da eta inoiz saririk jaso ez duena. Luzerari dagokionez ez da mugarik ipini.

Gutunak entregatzeko azken eguna martxoaren 17a izango da, eta lanak entregatzeko postontzi bat jarri dute gaztelekuaren sarreran.

Gutunak aurkezteko epea bukatzen denean epaimahaia bilduko da lanik onenak zeintzuk diren zehazteko. Hala, hiru sari bantuko dituzte: gutunik onenak musika-kate bat eskuratuko du; bigarren sarituak DVDa erango du, eta hirugarrenak MP4a. Sari banaketa ekitaldia gaztelekuan bertan egingo dute.

Lehiaketaren inguruko informazio gehiago gura duenak gaztelekura jo edo 943 78 82 57 telefonora deitu dezake.

IKASTAROA > TRIKITI TALDEAK ANTOLATUTA

Dantza ikastaroak bihartik aurrera

Bederatzi egunetan, arin-arin eta fandango ikastaroak emango dituzte Oñatz Dantza Taldeko lagunak, Errekaldeko lokalean

M.B. > OÑATI

Debagoieneko IV. trikiti egunaren antolatzaileek dantza ikastaroak iragartzen dituzte bihartik aurrera; hain zuzen, arin-arin eta fandango ikastaroak. Oñatz Dantza Taldea izango da ikastarook emango dituenak.

Ikastaroa martxo eta apirilko bederatzi egunetan emango dute: martxoaren 4an, 8an, 11n, eta 15ean, eta apirilaren 8an, 12an, 15ean, 18an eta 22an, martitzenetan 20:00etan eta zapatuetan, 12:00etan.

Ikastaroan parte hartu ahal izateko ez dago izena eman beharrik. "Nahiko da bihar Oñatzek, Errekalde auzoan duen lokale-

an agertzea", esan digu antolatzaile Eneko Zumaldek. "Irakasleek ikusiko dute ikastarora doazenez zer nolako maila duten, eta horren arabera taldeak banatuko dira".

JAI HANDIA, APIRILAREN 26AN

Bestalde, Debagoieneko IV. Trikiti eguna apirilaren 26an ospatuko da Oñatin. Bailarako trikitilariak izango dira egun horretako protagonista nagusiak. Era berean, Imuntzo eta Belokik erromeria eskainiko dute egun horretan.

Gainera, apirilaren 19an, trikitiari buruzko hitzaldi kulturala iragartzen dute.

> ATERATZEA

Urteko hirugarren odol-ateratzea egingo dute egubakoitz arratsaldean, Txantxiku Ikastolan

Oñatiko odol emaien taldeak antolatuta odol-ateratzea egingo dute gaur arratsaldean. Donostiatik datozen mediku eta erizainak arratsaldeko seietan hasiko dira ateratzeak egiten, 20:30era.

Txantxiku Ikastolako geletan egingo den ateratzea urteko hirugarrena izango da. Urtea bukatu arte, hileroko ateratze bana egingo dute, uztailean eta abuztuan izan ezik. Odol-ateratzea egingo dute hurrengo datak dira: apirilaren 11n, maiatzaren 9an eta ekainaren 6an.



GOIENKARIA

Argentinarako diru-laguntza

Elkar Hezi ikastetxeak Gabonetan antolatu zituen ekintzetan jasotako dirua Argentinara bidali du. Elkartasun taldeko kide Jose Antonio Urteagak 1.500 euroko txekia jaso zuen Haur Hezkuntzako ikasle Iratiren eta Xabierren eskutik. Elkar Hezik jasotako diruari esker Argentinako hiru haurri ikasten jarraitzeko laguntza emango zaie.



AURREKOA BIDEGORRIAN Orain dela bi urte bidegorriaren ondoan landatu zituzten zuhaitzak.

GOIENKARIA

DBHko lehenengo mailako ikasleek, guztira, 50 gerezi, haritz, Iparraldeko haritz eta lizarra landatuko dituzte kuarter zaharraren pareko lurzoruan

MIRIAN BITERI > ARETXABAETA
Urtebeteko etenaldiaren ostean, Zuhaitz eguna izango dute aurten berriro Aretxabaletan. Arizmendi eta Kurtzebarriko DBHko lehenengo mailako ikasleek parte hartuko dute horretan. Eguenean izango da.

Arratsalde partean, zuhaitzak landatzen ibiliko dira 90 ikasle inguru. Hitzordua

ARETXABAETA > ZUHAITZ EGUNA

Kurtzebarrikoek eta Arizmendikoek Zuhaitz eguna dute eguenean

14:30etan egin dute herriko kuarter zaharraren pareko lurzoruko zati batean. Udalaren lurzoruko batean, hain zuzen ere.

Guztira, 50 gerezi, haritz, Iparraldeko haritz eta lizarra landatuko dituzte. Gaztetxoek zuloak eginga izango dituzte ordurako eta beraz, arbola baino ez dute landatu beharko. Kurtsoan zehar, ingurumen programa batean jar-

dun dute klasean eta beraz, "orain arteko teoria praktikara eraman beharko dute", azpimarratu du Ingurumen koordinatzaile Anabel Diezek.

BI ORDU INGURU

Bi ordu inguru emango dituzte Arizmendikoek eta Kurtzebarrikoek zeregin horretan. Taldeka arituko dira arbolak landatzen.

Esan bezala, Zuhaitz eguna egin zen azken aldia orain dela bi urte izan zen. Bidegorrian landatu zituzten orduan zuhaitzak. Herri osoari zabalduak ekimena izan zen garai hartakoa. Bada, jende gutxi animatu zen eta antolatzaileek ez zuten espero zuten erantzuna izan. Joan zen urtean ez zen ezer egin eta aurten ikasleei bideratu gura izan dute.

> ARETXABAETA

Aurrekontuaren harira, EAJ taldeak Aralarri erantzun dio

Aurtengo aurrekontuak zeresana sortzen dihardu. EAJ taldeak Aralarri erantzun gura izan dio asteon. Onartu berri den udal aurrekontuak joan zen urtekoaren "kopia dirudie-la" eta hiru partida ezberdin baino ez dituela topatu dio.

Horrez gain, inoiz eman den etxebizitza promozio publikoko ekimenik garrantzitsuena alderdi jeltzaleak egin duela esan du. Aurrekontua egiteko prozedura salatu du berriro ere.

> ARETXABAETA

Martxoaren 17tik 26ra bitartean itxita egongo da KZgunea

KZgunea orduetegi berria du. Astelehenetik egubakoitzera, 16:00etatik 20:00etara bitartean zabalik egongo da. Aste Santuko oporrak direla eta, bestalde, martxoaren 17tik 26ra itxita izango da.

Dagoeneko ONA txartela ere eskuratu daiteke. Horrekin hainbat gestio egin daitezke: liburutegietako liburu, DVD eta CDen mailegua eskatu eta gizarte segurantzako bizitza laborala eskuratu.

ESKORIATZA

Zaborraren gaineko erakusketa Ibarraundin

IKER BARANDIARAN > ESKORIATZA
Bihartik martxoaren 16ra bitartean *Hondakinak, amesgaiztorik ez!* erakusketa egongo da ikusgai Ibarraundi museoan. Astelehenetik egubakoitzera, 17:00etatik 19:00etara bitartean egongo da zabalik; zapatuan, 17:00etatik 20:00etara; eta domekan, 12:00etatik 14:00etara, eta 17:00etatik 20:00etara.

Erakusketa Debagoieneko Mankomunitateak antolatu du, eta dagoeneko Bergararik eta Oñatitik pasa da. Ibarraundiko kasuan, Eskoriatzako eta Aretxabaletako ikasleek bisita gidatuak egingo dituzte.

Hondakinaren gaineko bost eduki-multzotan banatuta dago. Alderdi askotatik lantzen dute gaia: iraganen hondakinei zer irteera ematen zitzaien edo egun zer egiten den horrekin... Horrez gain, aztertu dute, baita ere, hondakinaren ekoizpena, horren kantitatea eta kalitatea. Aholkuak ere ematen dira.

Leintz Udal Euskaltegikoak Legorretako sagardotegira

Iazko moduan, aurten ere, Leintz Udal Euskaltegiko ikasle eta irakasle talde bat sagardoa dastatzera joan zen. Legorretako sagardotegi bat aukeratu zuten horretarako. Giro ederrean pasatu zuten guztiek gaua. Egunari Aretxabaletan eman zioten bukaera eta jakinarazi digutenez, badira goizeko ordu txikitik etxeratu zirenak. Dagoeneko datorren urtekoari begira daudela gaineratu dute.



UDAL EUSKALTEGIA



IKUSKAPENA Etxebideko teknikariak, Murias enpresako arduraduna eta Erostarbe alkatea etxebizitza sozialak ikusten.

GOIENKARIA

ELGETA > TORREALDEKO BABES OFIZIALEKO ETXEBIZITZAK

Jabeei giltzak emateko atzera kontua hasi da

Uraren arazoa bideratuta dago eta argindarrarekin izan dena asteen konpontzea espero du Udalak

M.A./L.Z. > ELGETA

Eguenean Etxebideko teknikariak Torrealdeko babes ofizialeko etxebizitzak ikuskatu zituzten. Oxel Erostarbe alkatea, Murias enpresa eraikitzaileko ordezkaria eta lanen zuzendaritza eraman duen LKS enpresako teknikariak izan zituzten lagun.

Oro har, Jaurlearitzako teknikariak gustura geratu dira. Hurrengo asteetan etxebizitzetako giltzak emateko dokumentazioa prest izatea espero dute. Salbador kaleko lanekin uraren arazoa bideratuta dago. Iberdrolako ardura-dunek espero dute gaurko sektore guztian argindarra izatea.

KONPONKETA TXIKIAK

Etxebizitza guztiak, garajeak eta trastelekuak barne, banan-banan aztertu dituzte Jaurlearitzako teknikariak. Egin beharreko zenbait konponketa topatu dituzte. Esatera, leihoetako barandak arautegiak dioen altuerara ipini beharra, garajeei zerbakiak ipintzea edo ateetako sarraila behar den moduan jartzea. Horiek izango dira hurrengo egunetan egin beharreko lanak.

ARAMAIO > ZUHAITZ EGUNA

Martxoaren 7an Zuhaitz Eguna ospatuko dute eskolako umeeak

Kurtzetara autobusez joango dira eta handik, gero, San Adrianera

Udalak prestatutako lursail batean egingo dituzte landaketak

ARRITXU BARRUSO > ARAMAIO

San Martin eskolako haurrek Zuhaitz Eguna ospatuko dute datorren barikuan. Lehen Hezkuntzako lehenengo eta seigarren maila bitarteko haurrek San Adrian inguruan landatuko dituzte zuhaitzak.

Udalak antolatuta 09:30ean autobusa hartuko dute eskolako umeeak, eta Kurtzetara joango dira. Handik oinez joango dira San Adrian aldera. Udalak horretarako prestatuta daukan lur sail batean, gero, zuhaitz mota desberdinak landatuko

dituzte. Guztiak ere bertako zuhaitzak izango dira: gereziondoak, haritzak eta lizarrak, besteak beste. Eguerdiko 12:30 inguruan eskolara itzuliko dira.

Eskolako gaztetxoek ere ospatuko dute zuhaitz eguna. Horiek, baina, oso urrun joan barik herrian geratuko dira. Aramaioko lorategi eta parkeetan loreak eta zuhaixkak landatuko dituzte txikitxoek. Guztira 113 ume inguruk hartuko dute parte Zuhaitz Egunerako San Martin eskolak eta Udalak antolatuta dituzten ekintzetan.

LEINTZ GATZAGA > AZPIEGITURA LANAK

Astean hasiko dira bigarren faseko azpiegitura lanekin

Lanak Aikia enpresari esleitu zizkion Udalak abenduan, eta dagoeneko lanean hasiko dira

MIRARI ALTUBE > LEINTZ GATZAGA

Aste honetan bertan hasiko da Arrasateko Aikia enpresa ur saneamenduaren eta gasaren lanak egiten herrian. Abenduan egindako osoko bilkuran esleitu zizkion Udalak lanak, eta 291.162 euroko aurrekontua aurreikusi zuten. Gainera, Eusko Jaurlearitzaren dirulaguntza jasoko dute azpiegiturak hobetzeko lanok; hala iragarri zuen Javier Madrazo Etxebizitza eta Gizarte sailburuak abenduan egindako bisitan. 169.000 euroko laguntza bideratuko du Jaurlearitzak, hain zuzen. Sei hilabete inguru iraungo dute lanok, hortaz, aurtengo udazkenerako bukatuta izango dituzte.

GASA ETA SANEAMENDUA

Azpiegituren lehenengo faseko lanak 2006an egin zituzten. Hala ere, gasa izateko baimena lortzeko eta paper kontuek asko atzeratu zuten gasaren etorrera. Herriaren kanpo aldean dauden bi gas tangak 2007ko azaroan bete zituen Repsolek, eta abenduan iritsi zitzaizen gasa etxeetara gatzagarrei.

Orain bigarren faseko lanak hasiko dituzte. Pilar kalean, frontoi inguruan eta Erronda pasealekuan egingo dituzte lanok: zangak egokitu, ur beltzen saneamendua berritu, gasarendako hodiak sartu eta argi publikoak jarri. Lanek herritarrei eragozpen handirik ez sortzea espero du Udalak.



AZPIEGITURA LANAK Lehen faseko lanak 2006an egin zituzten.

M.A.

ANTZUOLA > MENDIA

Ibilaldi neurturako izen-ematea zabalik

Arrola mendizale elkartearen lokalera jo beharko dute interesatuek eguaztenean 19:00etatik aurrera

Arrola mendizale elkartearen lokalera joango dira bertatik eta Parteitti auzora gero. Bertan bigarren kontrola izango dute. Konoba baserrirako bidea egingo dute ondoren, eta hamaiketako ia izango dute bertan zain. Zupide baserrian egongo da hirugarren kontrola eta azkenik, San Martzialera joanda ikastolan amaituko dute ibilaldi neurtua. Gutxi gorabehera hiru ordu eta erdi beharko dituzte amaitzeko.

IBILBIDEA

Mendizaleek Aranzadi Ikastolan, Seminarioko patioan, hasiko dute ibilbidea 08:30ak aldera. Agarrera joango dira bertatik eta Parteitti auzora gero. Bertan bigarren kontrola izango dute. Konoba baserrirako bidea egingo dute ondoren, eta hamaiketako ia izango dute bertan zain. Zupide baserrian egongo da hirugarren kontrola eta azkenik, San Martzialera joanda ikastolan amaituko dute ibilaldi neurtua. Gutxi gorabehera hiru ordu eta erdi beharko dituzte amaitzeko.

IRATI AGIRREAZALDEGI > ANTZUOLA

Bergara inguruko mendietan egingo dute hurrengo domekan, martxoaren 9an, 10 eta 15 urte bitarteko eskola umeeak ibilaldi neurtua Eskola Kirola egitasmoaren baitan.

Ibilaldi neurtuan parte hartu nahi duten Antzuolako Herri Eskolako umeeak jadanik eman dute izena. Baina gainontzeko herritarrek, gurasoek esaterako, badute mendi ibilaldira joateko aukera.

Kirola



> **FUTBOLA**
Aretxabaletak aurrean jarraitzen du Hernaniri 3-2 irabazita > 18



> **ESKUBALOIA**
Ford Mugarri eta Bergara makal etxean jokaturako partiduetan > 19



> **ELKARRIZKETA**
Mari Sol Ramos lasterkari oñatiarrarekin izan gara > 20



LURRETIK ARRASTAKA Irudian, Berraondo zabalera jaurtitako pilota harrapatzeko ahalegina egin eta gero; Mendizabal eta Muruamendiarez ere sarritan ibili ziren lurretik bueltaka, zaleen gozamenerako.

XABIER URTZELAI

PILOTA JAIALDIA ANTZUOLAN > OLALDE ELKARTEAREN 30. URTEURRENEKO OSPAKIZUNA

Itzalaldiak ez zuen eskuz binako partidua iluntzea lortu (22-17)

Izertia ondo botata irabazi zuten Mendizabalek eta Elkorok

Markagailuak 6-4 erakusten zuenean pilotalekua argi barik geratu zen

XABIER URTZELAI > ANTZUOLA
Pilotalekuan argi barik geratu izanak ere ez zuen lortu pilota jaialdia iluntzea. Antzuolarrek ondo erantzun zioten deialdiari; eskuz binako partiduak ikusmin handia sortu zuen herrian, eta harmaitetan batu zen jende kopuruak

berretsi zuen hori. Eskuz binakoa baino lehenago, baina, Gipuzkoako Pala Txapelketan Olalde ordezkatu duten Zabalo-Manso eta Zabalo-Iturbek izan zuten jaialdia girozen hasteko ardura (35-14), eta ondoren etorri ziren omenaldiak eta dantzak.

Ordurako, baina, antzuolarrek herriko lau pilotari ezagunenak ikusteko desatzen zeuden. Galdera asko zeuden airean: pilota profesionala utzi eta gero Elkorok zelan erantzungo zuen, Mendizabalen eskuak eutsiko ote zuen -minduta dauka-, Berraondok ze maila emango zuen udatik jokatu barik egonda, eta gainera, berea ez den lekuan -atzean-, eta, beste horrenbeste Muruamendiaren gainean ere, horrek ere hilabeteak zeramatzen-eta jokatu barik. Bada, ikusleen gozamenerako laurak erantzun zuten ondo, oso ondo.

HASIERAN INDARTSU
Mendizabalek eta Elkorok erritimo handiarekin hasi zuten partidua, eta horri esker segituan aurreratu ziren markagailuan (4-1). Lehenengo tanto horien ondoren etorri zen benetako ikuskizuna. 2-4koan, Muruk ezker gantxo ederrarekin zabalera bidali zuen pilota, eta 2-5ekoan Elkoro luzitu egin zen: Muruk ondo harrapatu zuen Mendizabalek txokoan utzitako pilota, baina segidan, kontrarioek atzera botako zutela pentsatuta, Elkorok intentzio handiz laugarren koadrotik zabalean utzi zuen pilota, oso dotore -Berraondok ere horrela egin zuen 12-9koa-.

Biziki eskertzekoa izan zen bi aurrelariak izan zuten lehia, gantxoak zabalera noiznahi. Tanto borrokatuak jokatu zituzten; han ez zegoen ezer oparitzeko. Hala, Murukegin zuen 12-12koa, parti-

duko berdinketa bakarra. Ondorengo bi tantoetan Berraondok txapa azpira bota zuen-eta pilota, eta kontrarioek tartea hartu zuten berriro (15-12). Hala, tarte horri eustea izan zen helburua (16-13, 20-16). Muruk egin zuen 20-17koa,

Elkoro aurrean zela aprobetxatuta atzera bota eta Mendizabali atzelari lanak egitera behartuta. Baina, bikote horrek egin zuen azkena izan zen (22-17). Lehertuta amaituta ere, dagoeneko errebantxa eskatu dute.



Olaldeko pilota sailekoek omenaldia jaso zuten, urtetan egindako lanagatik.

x.u.

PREFERENTEA > ARETXABAETA-HERNANI

Aretxabaletak behar baino gehiago sufriarazten ditu zaleak

ARETXABAETA

3-2

HERNANI

Aretxabaleta > Elgarresta, Raul, Garai, Ruben, Ibon, Iban, Orueta (David Espinosa, 60.min), Igartua (Argider, 75.min), Arriaga, Eriko (Julen, 84.min) eta Iban Espinosa (Iñaki, 60. min).

Hernani > Gartzia (Josu, 85. min), Juan, Hodei (Arkaitz, 70. min), Zabala, Javier, Igor, Unai (Asier, 76. min), Mikel, Beñat, Iñigo eta Gorka.

Bestelakoak > Inoiz baino zale gazte gutxiago ibarran, asko Anoetan zeuden-eta.



DEFENTSAN Hernanikoek Rubenek egindako penaltia eskatu zuten jokaldi horretan.

XABIER URTZELAI

XABIER URTZELAI > ARETXABALETAK

Hernaniren kontra hiru puntuak eskuratu izana da atzoko partidua eman zuen onena. Horri esker, Aretxabaletak aurrealdeko taldeek osatzen duten trenean jarraitzen du, geltokian geratu barik. Atzo, Arenazaren taldeak dena egin zuen, ona eta txarra, baina dena. Hau da, norgehiagoka irabazi izanaren erantzule dira, inork ezer oparitu barik egin zituztelako golak. Baina, zaleak horren urduri egotearen erantzule ere badira, 3-lekoarekin jota zegoen Hernaniri itxaropena emango zion gola erraztu ziotelako (3-2).

MALDAN GORA

Lehenengo minutuek laburtzen dute ondo atzoko partidua. Igar-tuak izan zuen lehenengo gol aukera garbia; ate aurrean hurbil-hurbileko jaurtiketa desbideratu egin zuen atezainak. 20. minutuan, Eri-kori penaltia egin zioten, baina Arriagak ez zuen asmatu; eta handik gutxira, eskuin hegalean Hernaniko Juanek ondo presionatu

zuen Ibon atzelaria, azken unean baloia lapurtu eta 0-1ekoa kanpotarrendako. UDak, baina, ondo gaintu zuen kolpe hori: falta jaurtiketa batean -urrunik- Iban Lopezek baloia astindu eta baloiak zuzen egin zuen barrura (1-1).

Bigarren zatian indartsuago zelairatu ziren etxeok. Espinosak egin zuen 2-1ekoa, defentsaren laguntzaz, eta Rubenek egin zuen

3-1ekoa, aldaratze batean. Orduan, baina, Hernaniri behar baino opari gehiago egiten hasi eta seguitan etorri zen ordaina (3-2). Eta, beharrezkoa ez zenean, berriro sufri-menduak. Hernaniri, baina, hortxe amaitu zitzaion gasolina. Txarrena, Hernaniko atezainak egindako lesioa; Espinosak eta Gartzia talka egin zuten, azken horren belauaren kalterako.

PREFERENTEA > TOURING-MONDRA

Baloi geldiko jokaldietan soilik egin zuen min Touringek

TOURING

0-2

MONDRA

X.U. > BERGARA

Mondra hiru puntuekin itzuli zen zapatuan Errenteriatik, Touring taldeari irabazita. Joko alde-tik, Touringek ez zuen aparteko gaitasunik erakutsi; bistan geratu zen zergatik dauden azkenaurreko postuan. Hala ere, aurrealdean jokalariek garaiak ditu Touringek, eta Mondrak partidua kontrolpean izan bazuen ere, baloi geldiko jokaldietan gura baino gehiago sufritu zuten.

Partidua hasi eta 20. minutuan egin zuen Muruak Mondra-
rendako lehenengo gola. Korner erdiraketa batean, Amutxastegik buruarekin baloia orraztu eta bigarren zutoinean Arrasa-



ATXABALPEN laz, Mondrak eta Touringek jokaturako partiduko irudia.

ARTXIBOA.

teko aurrelariak buruz egin zuen 0-1ekoa. Zabalik zegoen garaipenerako bidea.

ZORTEA LAGUN

Gol horren ondoren izan zituen, baina, Touringek berdinketa lortzeko aukera garbienak, aurreratu moduan, baloi geldiko jokaldien bitartez birritan bota zuten

eta baloia langara. Errenteriatok-
ek abagune horiek aprobetxatu ez, eta Mondrak eman zuen kolpe erabakigarria: 86. minutuan, Ekainek jokaldia egin zuen Heri-zekin, eta horrek emandako atzera pasea ondo aprobetxatu zuen Alzolak (0-2). Datorren astean Mondrak puntu batera dagoen Ondarroako Aurrera hartuko du.

PREFERENTEA

Aloña esku hutsik Gal futbol zelaitik

X.U. > BERGARA

Aloña Mendik 3-0 galdu zuen zapatuan, eta garaipen horri esker Real Unioneke berriro ere lehenengo postura egin du jauzi -Ordizia aukera paregabea galdu du lider jarraitzeko-.

Joan den astean etxean berdinduta Zubiaren mutilek ondo zekiten Real Unionen kontrako partidua irabazteak ze garrantzia zuen. Baina, etxean lortzen ez dena gaitza da etxetik kanpo lortzea. Hori gutxi balitz, Real Unionen partidua bakarra galdu du aurrean Gal futbol zelaietan, eta Aloña ez dago momentuan aparteko ezusteak emateko sasoiz. Asteburuko porrota ahaztu, eta oñatiarrek datorren asteburuan bi puntura dagoen Vasconia-
ren kontrako partidua presatzea dute onena.

emaitzak eta sailkapenak

PREFERENTE MAILA

Sailkapena	Puntuak	JP
1. Real Union	47	24
2. Ordizia	46	24
3. Berio	45	24
4. Trintxerpe	42	24
5. Aretxabaleta	41	24
6. Ondarroako Aurrera	40	24
7. Mondra	39	24
8. Hondarribia	32	24
9. Hernani	32	24
10. Euskalduna	31	24
11. Idiazabal	27	24
12. EHU Vasconia	27	24
13. Aloña Mendi	25	24
14. Anaitasuna	25	24
15. Eibartarrak	23	24
16. Zestoa	22	24
17. Zumaiaiko	21	24
18. Touring	21	24

Emaitzak

EHU Vasconia-Zumaiaiko	1-1
Real Union-Aloña Mendi	3-0
Hondarribia-Zestoa	2-1
Berio-Idiazabal	2-1
Ordizia-Anaitasuna	1-1
Euskalduna-Eibartarrak	0-0
Aretxabaleta-Hernani	3-2
Ondarroako Aurrera-Trintxerpe	2-1
Touring-Mondra	0-2

Hurrengoak

Aloña Mendi-EHU Vasconia	
Zestoa-Real Union	
Idiazabal-Hondarribia	
Anaitasuna-Berio	
Eibartarrak-Ordizia	
Hernani-Euskalduna	
Trintxerpe-Aretxabaleta	
Mondra-Ondarroako Aurrera	
Zumaiaiko-Touring	

BESTELAKOAK

LEHENENGO ERREGIONALA

Bergara-Amaikak Bat	0-2
Antzuola-Amara Berri	0-0

BIGARREN ERREGIONALA

Sanpedrotarra-Aretxabaleta	3-1
Mondra-Dunboa Eguzki	6-0
Landetxa-BTLS	2-3

OHOREZKO GAZTEAK, IGOERA

Mariño-Aretxabaleta	2-1
Vasconia-Bergara	2-3

OHOREZKO GAZTEAK, KOPA

Aloña Mendi-Orioko	2-1
Beti Gazte-Mondra	3-1

LEHENENGO MAILAKO GAZTEAK, IGOERA FASEA

Aretx. Arizmendi B-Idiazabal	1-1
------------------------------	-----

OHOREZKO KADETEAK, IGOERA

Reala-Aloña Mendi	3-0
Bergara-Lengokoak	2-0

LEHENENGO MAILAKO KADETEAK, IGOERA FASEA

Amaikak Bat-Arrasate	2-4
Intxaurren-Oretxabaleta	2-0

OHOR. INFANTILAK, TXAPELDUN FAS.

Antiguoko-Bergara	12-1
Aretx. Arizmendi-Sanse	3-2

EMAKUMEZKOAK, IGOERA

Elgoibar-BTLS	0-1
---------------	-----

EMAKUMEZKOAK, KOPA

Bergara-Zestoa	2-2
Mondra-Arizmendi B	13-0



Aurten 84 milioi euro inbertituko ditugu Gizarte Ekintzan. Adituek esaten digute gure irudia hobetu egingo litzatekeela kanpaina mediatiko zirrargarri baten bidez. **Baina ezagutzen gaituzu.** Guk nahiago zuri Institutu Onkologiko berrirako lanak erakutsi.

125 urte gizartearen ongizatearen alde lanean
Gizarte Ekintza, **kutxa**ren izateko arrazoa.



zer nahi duzu bihar?

www.kutxa.net

 **kutxa**

LEHEN ERREGIONALA > BERGARAK ATZERA SAILKAPENEAN

Gol bat sartu, atzera egin eta partidua eraman zuen liderrak

BERGARA

0-2

AMAIAKAK BAT

Bergara > Sesma, Josu, Lazpiur, Elorriaga, Nafarrate, Agirre (Manolo, 80. minutuan), Loiola, Izarbe (Martin Ibañez, 22. m.), Otero (Gomez, 87. m.), Balzategi eta Martínez (Eloy, 72. min.).

Amaiakak Bat > Odriozola, Salegi (Alba, 47. m.), Ezenarro, Conde, Rementeria, Urkiri (Ariznabarreta, 72. m.), Esnaola (Indamendi, 89. m.), Lekube, Agirregomezkorta (Seara, 91. m.), Garcia (Rementeria, 83. m.) eta Paul Garcia.

Bestelakoak > Unai Ordoñez epaileak lan ugari izan zuen. Hamalau txartel hori atera zituen. Albak (56. min) eta Lazpiurrek (68 m.) bi aldiz ikusi zuten txartela eta kanpora bidali zituen epaileak. 700 ikusle inguru Agorrosinen, Debatik etorritako 150 bat lagun tartean.

EDU MENDIBIL > BERGARA

Zortzi minutu luzatu zuen epaileak zapatuko partidua. Hala ere, partidua luzea izan arren, baloia denbora gutxi izan zen jokoan. Falta ugari, etenaldi asko eta joko eskasa Bergarak eta Amaiakak Bat liderrak erakutsi zutena. Lehen

zatian etxeokak izan ziren nagusi; hala ere, ez ziren fin ibili ate aurrean. Izarbek eta Martinezek izan zituzten abagunerik onenak, baina Odriozola atezaina bikain ibili zen. Izandako aukera bakarrean, kontraeraso baten, asmatu zuten bisitariak. Paul Garciak egin zuen gola. 43. minutuan, Agirrek ederki jaurti zuen areaz kanpotik, eta Odriozolak kornerrera urrundu zuen baloia.

FALTA ASKO ETA JOKO GUTXI

Bigarren zatian Bergarak jarraitu zuen agintzen. Hala ere, atzean sartuta, debarrek ez zuten arazo handirik etxeokoen erasoak gelditzeko. Martin Ibañezek bere hanketan izan zuen berdinketa; area txikian bakar-bakarrik zegoela ez zuen asmatu aurrelari bergararrak, Balzategiren barneraldi bikainaren ostean.

Jokalari bat gutxiagorekin jokatu zuen Amaiakak Batek 56. minututik aurrera. Bergarak ez zuen jakin izan abantailari etekina ateratzeko orduan. Gainera, Agirrek bere burua kanpora bota zuen, epaileak falta adierazi, Agirrek protesta egin eta



EZINEAN Agirre bergararra baloia luze jokatuz, zapatuko partiduan. J. ARANTZABAL

bere aurrean baloia urrundu ostean.

Azken minutuak oso nahasiak izan ziren eta jokoa gogortu egin zen bi taldeen partetik. Nahasmen horretan probetxua atera zuen liderrak, partidua erabakita uzteko. Burukada eder batekin

0-2koa jarri zuen Rementeria defentsak. Aldagelara bidean, ia ia igoera ospatu zuten debarrek. Bergarak, aldiz, atzera egin du, azken bi partidua galduta. Manu Diaz entrenatzaileari, etsita, zera entzun genion aulkian: "Hau ez da futbola, ezta antzekorik ere".

LEHEN ERREGIONALA

Antzuolak ezin golik egin Amara Berriri

Aukera mordoa galdu zituzten Azkargortaren jokalariek


GOIENKARIA > BERGARA

Lehen itzulian 1-5 irabazi zion Antzuolak Amara Berriri. Zapatuan, ordea, ez ziren gol bakar bat ere egiteko gauza izan Andoni Azkargortaren mutilak. Aukera mordoa izan arren, ez zuten bisitarien atea zulatzerik izan. Lehen zatian bost aukera garbi huts egin zituzten etxeokak. Donostiarrak atezainak zerikusia izan zuen horretan. Bigarren zatian, atzera. Azken bost minutuan, jokalaria bat gutxiagorekin, husnakoari eutsi zioten donostiarrak.

ANTZUOLA, LAUGARREN

azken bi partidutan, puntu bakarra eskuratu dute antzuolarrek. Sailkapeneko laugarren tokian dira orain. Hurrengo astean Rotetari egingo diote bisita.

euskadin bizi naiz ni.
zu, non bizi zara?



Ikertzaileak

EAJ
PNV
www.eaj-pnv.eu

EUSKADIKO TXAPELKETA > EZIN BOSGARREN GARAIPENA ERDIETSI

Etxeko taldeak emandako erraztasunez baliatu zen Romo

BERGARA

26-34

ROMO

Bergara > Kapelategi, Uribe (3), Aldanondo (3), Ugalde (1), Sanchez (6), Iñaki Najera, Xabier Najera, Plazaola (2), Lenisoro (1), Manuel (7), Larrañaga (3), Zangitu, Gartzia eta Agirre.

Romo > Gomez, Padierna, Garaizar (7), Menta (3), Latorre (5), Solana (2), Calle (2), Rua, Hernandez (6), Martinez, Molinero, Hernando, Santos (1), Gaztelua (8) eta Doval.

Golak bost minuturo > 3-4, 7-10, 10-12, 13-15, 15-16, 15-15. Bigarren zatian: 15-19, 18-23, 19-26, 21-29, 24-31 eta 26-34.



ERASOAN Erasoa huts asko egin zituen etxeko taldeak eta horrek eman zion garaipena Romori.

JOSETXO ARANTZABAL

JASONE ZABALA > BERGARA

Bergarak ezin izan zuen zapatuan bosgarren garaipena lortu eta Romoren aurka 26-34 galdu zuen. Etxekoek urduri hasi zuten partidua. Erasoa eta defentsan hasierako minutuetan intentsitatea erakutsi zuten eta markagailua parekatuta joan zen. Baina Edu Orgazen mutilek (Muniategi ordezkatu berri du Orgazek) aukera asko huts egin zituzten erasoan. Atsedendira 15 eta 17ko emaitzarekin heldu ziren.

PARTIDUA APURTU

Talde bizkaitarra bigarren zatian indar handiz atera zen. Zehaztu-

gabetasun asko izan zituzten bi taldeek bigarren zati hasieran eta honi probetxua Romo taldeak atera zion. Horrela, bigarren zatiko bosgarren minutuan, lau goleko errenta zeukaten (15-19). Etxeko taldeak defentsa aldatu

zuen alde hori murrizteko asmoz, eta 5-leko defentsan agindu zuen Orgazek. Horrela, baloi batzuk lapurtu bazituzten ere, erasoko jokoa ez zuten asmatzen. Baloi ugari galdu zituzten eta erasoan egindako falta ugari adierazi

zuten epaileek. Romok etxekoek emandako erraztasunak aprobetxatu zituen eta markagailuan alde egin zuten. Bi minuturen faltan etxekoek presioa egin bazuten ere, ez zuten ezertarako balio izan.

EMAKUMEAK

Liderra estutu zuen Aloñak

J.Z. > OÑATI

Zapatuan Verkol Aloñako senior neskek 22nako berdindu zuten Barakaldo liderraren aurka. Lehen zatia indartsu hasi zuten etxekoek, hutsik egin gabe; zazpi goleko errenta izan zuten alde. Hala ere, lehen zatia 15-10 amaitu zen. Bigarrenean, etxekoek fisiko ki behera egin zuten eta kanpokoan atezainaren gelditu bikainekin berdinketaz amaitu zen partidua.

EUSKADIKO TXAP.

Ford Mugarrik galdu etxean

J.Z. > ARRASATE

Zapatuan jokaturako partiduan Ford Mugarrik 25-31 galdu zuen Gure Jorge Fernandez talde gasteiztarraren aurka. Lehen zatian parekatuta egon zen partidua.

Bigarren zatiko azken 15 minutuetan egon zen partiduko giltza. Epaileek etxeko bi jokalarik kanporatu zituzten bi minuturako, eta momentu horretan lortu zuten gasteiztarrek markagailuan errenta eta baita garaipena ere.

ATLETISMOA > ESKOLA ARTEKO SAIOAK MOJATEGIN

Eskola arteko atletismo saio arrakastatsua

Mojategin zapatuan ospatu zen eskola arteko atletismo saioetan 300 gaztetxo aritu ziren

JASONE ZABALA > ARRASATE

Zapatuan Mojategiko kiroldegian eskola arteko atletismo saioak egon ziren Athlon-ek antolatuta. Bertan, Arrasate eta Aretxabaleako gaztetxoak aritu ziren. 10.30etatik 11.30era, 8-9 urteko 196 neska-mutiko. Gaztetxoak luzera jauzian, pisu jaurtiketan, altuera jauzian aritu ziren. Ondoren, 11.30etatik 13.30era, 9-10 urteko 110 neska-mutikoen txanda izan zen. Gaztetxo hauek, 60 metroko lasterketetan, errelebotan, pisu jaurtiketan, altuera jauzian eta luzera jauzian aritu ziren. Antolatzaileen arabera,

Mojategira hurbildu ziren neska-mutikak asko izan ziren, espero zutena baino gehiago, eta pozik agertu ziren jasotako erantzunarekin.

MARKA BERRIA AXPEK

Jonathan Perezek entrenatzen duen Maialen Axpe arrasatearrak bestalde, kadete mailako Euskadiko marka berria ezarri zuen pertika jauzian, zapatuan Anoetan jokatu zen Pirinio txapelketan. Bertan, ordura arteko marka onena zena (2,95 metro) hobetu zuen eta hiru metrotako altuera gainditu zuen.



NESKA-MUTIKO UGARI zapatuan Mojategin 300 gaztetxo aritu ziren atletismoko modalitate ezberdinetan.

JOSETXO ARANTZABAL

Mari Sol Ramos oñatiarrak Euskadiko kros txapelketa irabazi zuen joan den aste bukaeran Amurrion. Emakumezkoen beterranoen kategorian nagusitu zen, hain zuzen ere. Gainera, orain gutxi Lloret de Marren jokatu-tako Espainiako txapelketan bigarren postuan geratu zen Ramos. Maila bikaina erakusten dabil, hortaz, oñatiarra aurtengo kros denboraldian.

Mari Sol Ramos > Euskadiko kros txapelduna eta Espainiako bigarrena

"Espainiako bigarren postua ikusita, Euskadikora gogotsu joan nintzen"

ARANTZAZU EZKIBEL > OÑATI

Astean hiru edo lau aldiz ateratzen da Mari Sol Ramos antxintxika egitera. Normalean gizonarekin ibiltzen da, biek dute eta gustuko atletismoa. Herri lasterketekin hasi zen Ramos, eta, orain, krosera pasatu da. Beti lasterketa buruan, maila ona ematen ari da oñatiarra.

Hasteko, zorionak! Nolako izan zen Amurrioko lasterketa?

Lasterketa gogorra izan zen: bost kilometro eta 150 metrokoa. Ibilbidea oso lehorra zegoen; normalean, krosetan ibilbidean lokatza egoten da, baina, azkenaldian ez duenez euririk egin oso lehorra zegoen lurra.

Zalantza izan nuen: betiko zapatilak jantzi edo iltzezkoak jantzi. Azkenean, iltzezko zapatilak erabili nituen.

Eta, lasterketa ona egin zenuen.

Bai, oso gogor atera nintzen. Hiru itzuli egin behar izan genizkion ibilbideari; lehenengo biak oso azkar egin nituen. Gero, behera etorri nintzen, baina, hala ere, lehenengo postuan amaitzea lortu nuen.

Gainera, otsailaren 10ean, Lloret de Marren Espainiako bigarrena izan zinen.

Bai, hala da. Beteranoen mailan bigarren postua eskuratu nuen Espainiako txapelketan.

Sorpresa handia izan zen niretzat. Aurtengo kros denboraldian maila onean ibili naizenez, Espainiako txapelketara aurkeztea erabaki nuen. Helburua, baina, parte hartzea besterik ez zen. Espainiako ere oso lasterketa bizkorra izan zen.

Beteranoen mailan, zenbat emakume ibiltzen zarete lasterketetan?

Espainiako txapelketan, adibidez, beterano mailako emakumeak 70 inguru izan ginen. Amurrion, berriz, emakume guztiak batera egin genuen antxintxika. Gero, sailkapena, mailaren arabera banatu arren.

Amurrioko lasterketan 19 urteko neska bat bakarrik sartu zen helmugara nire aurretik. Ni bigarren sartu nintzen, baina, mailaka, beteranoen artean lehenengo izan nintzen.

Euskadiko txapelketara ze helbururekin joan zinen?

Espainiako txapelketan

Amurrion. Emakumezkoen beterranoen kategorian nagusitu zen, hain zuzen ere. Gainera, orain

gutxi Lloret de Marren jokatu-tako Espainiako txapelketan bigarren postuan geratu zen

Ramos. Maila bikaina erakusten dabil, hortaz, oñatiarra aurtengo kros denboraldian.



Mari Sol Ramos, egubakoitzean Oñatin, Ibarrako atletismo pista luzapenak egiten.

JOSETXO ARANTZABAL

EUSKADIKO TXAPELKETA

"Hiru itzuli egin behar izan genizkion ibilbideari; lehenengo biak oso azkar egin nituen"

horren ondo ibili nintzela kontuan hartuta, Euskadikoan ere maila ona eman nezakeela pentsatu nuen.

Baina, oso ondo gertatuta egon arren egun txar bat izan dezakezu; hortaz, inoiz ez dakizu nolako lasterketa egingo duzun.

KROSA

"Iaz denboraldi ona egin nuela kontuan hartuta, federatzeko eta krosetan parte hartzeko esan zidaten"

Noiz hasi zinen atletismoan?

Urte asko dira atletismoan hasi nintzela; gustuko dut korrika egitea eta horregatik hasi nintzen. 25 urte nituen, gutxi gora behera hasi nintzen; orduan, herri lasterketan parte hartzen nuen. Gero, umeak eta lesioak tarteko, urte batzuetan ez dut korri-

OÑATIKO INSTALAZIOAK

"Gero eta jende gehiago dabil korrika eta, argi dago, Oñatik atletismo instalazio egokiak behar dituela"

ka askorik egin. Baina, urte batzuetan geldi egon arren, beti egon naiz atletismoari lotuta.

Iaz, herri lasterketan ondo nabilela ikusita, federatzeko eta krosetan parte hartzeko eskatu zidaten. Hasiera batean beldur pixka bat izan nuen; izan ere, kros lasterketak motzak eta gogorrak

izaten dira eta ni ez nengoen horretara ohituta. Baina, probatzea erabaki nuen eta maila ona ematen ari naizela uste dut.

Lasterketa ia guztietan buruan ibili zara.

Bai, hala da. Elgoibarren, Lasarten eta Ulián txapelduna izan nintzen eta beste ia lasterketa guztietan bigarren tokian sailkatu naiz. Poliki-poliki hobetzen joan naiz eta, egia esan, aurtengo denboraldia sorpresa izan da niretzako.

Alde handia dago asfaltoan korrika egin edo krosetan egitearen artean?

Lasterketa ezberdinak dira; krosetan lasterketak motzagoak dira eta ondorioz eritimo bizkorragoan egiten dira.

Zer da zuretzat atletismoa?

Gustuko dut; antxintxika egitea gustatu egiten zait eta. Gainera, emaitza onak lortzen badituzu, animatu egiten zara kirolarekin jarraitzeko.

Zure adineko emakume gutxi ikusten da korrika. Nola animatuko zenituzke?

Animatu daitezela esango nieke! Oso atsegina da korrika egitea; hala ere, onartzen dut kirol gogorra dela.

Gogoratzen dut, lasterketan parte hartzen hasi nintzenean, bi edo hiru neska besterik ez ginela ibiltzen Arrasate-Oñati bezalako lasterketan. Orain, berriz, askoz ere neska gehiago ibiltzen da korrikan.

Amurrioko lasterketan, beste oñatiar batzuk ere aurrean ibili ziren: Sergio Gartzia eta Yaraí Varela, esaterako.

Bai, oso maila ona ematen ari dira bi lasterkariak. Oñati mailan lasterkari onak daude, baina, banaka batzuk. Kasu honetan, bai Gartzia eta bai Varela oso maila onean ari dira.

Oñatin, atletismo instalazio egokiak falta direla uste duzu?

Bai, duda barik. Orain, gainera, Ibarrako pista kentzen dituen jendea ez dakit nora joan beharko den. Gaur egun, Ibarrako pista ez dago egoera onean, baina besterik ez dagoenez han ibiltzen gara. Argi dago, gero eta jende gehiago dabilela korrika eta Oñatik herriak instalazio egokiak behar dituela.

BERGARA

Herri kirolak protagonista Bergarako Udal Pilotalekuan

HERRI KIROLAK Asteburu hau ezohikoa izan da, izan ere, herri kirolean ibili dira Bergarako, Antzuolako eta Elgetako neska-mutikoak

PROBA EZAGUNAK Bost izan ziren denera egin zituzten probak: sokatira, lokotxak biltzea, zakuak eramatea, txingak eta jende proba

DENAK BATERA Neskek eta mutilek batera parte hartu zuten probetan eta hasieran mutil batzuk aurpegi txarra jarri arren, ez zen arazorik egon

BERGARA > TXOMIN MADINA

Futbola, saskibaloia, eskubaloia eta areto futbola izaten dira normalean Bergarako, Elgetako eta Antzuolako gaztetxoek eskola kirolen barruan egiten dituzten kirolak. Asteburu hau baina, ezohikoa izan da, herri kirolak izan dira eta jaun eta jabe. Herri Kirolen Federazioak antolatu zuen zapatu goizean Bergarako Udal Pilotalekuan egin zen saioa, eta Xiba elkarteko Joseba, Eñaut eta Jone begiraleak arduratu ziren gaztetxoei proben inguruko azalpenak eman eta probak eurak zuzentzeaz. DBHko 3., 4., 5. eta 6. mailako neska-mutikoek hartu zuten parte, benjamin eta alebin kategoriatan banatuta.

IRABAZLERIK EZ

Bost izan ziren denera txandaka egin zituzten probak: sokatira, lokotxak biltzea, zakuak eramatea, jende proba eta txinga lasterketa.

Zapatuko saioan, neskek eta mutilak, denak batera ibili ziren lehian, taldeak egiteko orduan nahastu egin zituzten-eta. Horrek zenbait mutikoren protestak eragin zituen hasieran, baina gero ez zen inolako arazorik egon.

Asteburu honetan gainera, ez da galtzaile edo irabazlerik egon. Izan ere, probetan taldeak elkarrekin lehian ibili arren, ez zituzten bertan lortutako emaitzak kontutan hartu eta beraz, ez dute sailkapenik egin. Datorren astetik aurrera, futbolak hartuko du herri kirolen lekua.



Antzuola A. Goian, ezkerretik eskuinera, Hira, Leire, Usue eta Aiora. Behean, Itziar eta Olatz.



Mariaren Lagundia. Ezkerretik eskuinera: Jon, Hormando, Lajus, Aitor, Victor eta Yuriko, .



San Martin A. Goian, Mikel, Xabat, Iker eta Gorka. behean, Julen, Unai eta Mohammed.



Aranzadi D. Amaia, Goizane, Nerea eta Ane. Eurak izan ziren alebinetan parte hartu zuten Aranzadiko neskek.

HERRI KIROLAK GUSTATU ZAIZKIZU?



Hira eta Usue
Antzuola A



Amaia eta Goizane
Aranzadi D



Iker, Xabat eta Unai
San Martin A

"Oso dibertigarria izan da." Horixe esan ziguten Hirak eta Usuek zapatuko herri kirolei buruz. Egin zituzten proba guztietan oso ondo pasa zutela adierazi ziguten. Sokatira izan zen gehien gustatu zitzaie proba, eta esan zuten goiz jai-ki behar izan arren, gustura joaten direla eskola kirolera.

Hauei ere sokatira izan zen gehien gustatu zitzaie proba. Neskek eta mutilak talde berdinetan egotea ideia ona iruditu zitzaie, mutilak batzutan "petral samarrak" direla gaineratu arren. Aurrez ezagutzen zituzten herri kirolean egindako probak, baina oso ondo pasatu zutela esan ziguten.

Aho batez futboleko ibiltzea gehiago atsegin dutela esan arren, herri kirolean ere ondo pasatu zutela aitortu zuten. Ez ziren nahikoa nekatu herri kirolean, eta hala, Ikerrek krosetako proba baten parte hartu zuen zapatu arratsaldean bertan. Hori da hori sasoi, mutilak!



**Hedabide
guztietarako
telefono berria
eta bakarra**

943 25 05 05



**ASTELEHENKO
Goienkaria Goienkaria**



Goiena.net
Debagoieneko Interneteko ataria

G2a

Goienka2a > KULTURA ETA AISIALDIA



> **BERTSOLARITZA**
Manex Agirre,
Arriolabengoa
eta Iker Agirre,
aurrera > 24



> **MUSIKA**
Punkak hartu
zuen Bergarako
gaztetxea
zapatuan > 24



> **KANTARI**
Oñati eta
Aretxabaletako
neska-mutikoak
Kantarin > 26



> **ELKARRIZKETA**
Julio Ibarra
kazetaria
elkarrizketatu
dugu > 29

FADOAK

'Un tesouro português' plaentxiarren eskutik

Ventos de Saudade Soraluzeko taldeak 15 fado aurkeztu zituen zapatuko kontzertuan.

Besteak beste, Misia eta Mariza fado kantari ezagunen doinuak jo zituzten

IBAN ARANTZABAL > ELGETA

Zergatik fadoa? Amalia Rodrigues-ek dioen moduan: Amodioaz, zeloez, hausterre eta suaz/ min eta bekatuaz/hori dena badenez/hori dena da tris-tea/ dena da fadoa.

Gustuko dutelako dira fadolarari plaentxiarrak, edukiak, kantuerak eta musikak eraka-

rrita. Lau dira, lauak ere trebe-ak euren egitekoan. Gitarra espainiarrarekin eta erritmoari egoki eutsiz, Jon Basauri; gitarra portugaldarrarekin eta musikaren pisua eramanez, Domentx Uzin orkestra gizona; zeharkako txirula fado taldeetan ikustea oso zail den arren, ondo josten diren melodiak hai-

zeetan, Ane Ugalde. Eta ahotsean, berriz, erregistro zabaleko ahots garbia eta sakona, Chaille-a esku biek hartuta ahotsa nahi eran goratu dezakeena: Arianne Unamuno.

EUSKALDUNAK PORTUGESEZ

Lau taldekideak dira kantuen aurkezle, hitzen itzultzaile edo kantuen norakoen azalpen-emale. Irudikatzen du inork Portugalera bidaian joan, Portugaleko lau seme-alabarekin tril egin eta euskal kantuez osatutako dozenatik gorako errepertorioa entzutea, esaterako Coimbran? Ba, utopiatxo hori errealitate egiten dute Ventos de Saudade

taldekoek. Benetako lau euskaldun fadolarari portugesez kantuan, euskarazko azalpenak lagun eta sentimenduak eraginez.

FADO EZAGUNAK

Lisboako zerua ikusi zuten Espaloia Kafe Antzokira gerturatutako 200.lagun inguruk. Txalo zaparrada Amalia Rodrigues edo Misiaren fadoetan. Bisetan Marizaren hiru: *Recusa*, *Loucura* (musikari poeta eta

entzuleak gogoan hartuta) eta *Faco Curvo*. Maria Bobonneren bat ere jo zuten horrela esaten duena: Bem pensado/todos temos nosso fado/E quem nasce mal fadado/melhor fado no terá.

Izan ere, eta ondo pentsatzen jarrita, bakoitzak badu fado bat eta Elgetako Espaloian batutako jendetzak 15 fadoren artean aukera egiteko parada izan zuten. Ibiltarte handia duen ikuskizun duina.



SENTIMENDUA Fadoen tristura eta sentiberatasuna ekarri zuen Ventos de Saudadek Elgetara..



AGURAINEN Manex Agirre eta Iker Agirre zapatuko Aguraingo kanporaketan.

LIERNI ALTUBE

BERTSOLARITZA > ARABAKO ETA OÑATIKO TXAPELKETA

Hiru aramaioarrak, finalaurrekoetara

Andere Arriolabengoak egubakoitzean lortu zuen finalaurrekoetarako sailkatzea. Lantziegon. Iker Agirrek eta Manex Agirrek, zapatuan Agurainen.

TXOMIN MADINA > DEBAGOIENA

Emaitza bikainak lortu dituzte asteburu honetan Arabako Bertso Txapelketan dabilzan hiru aramaioarrek, izan ere, hirurek eskuratu dute finalaurrekoetarako txartela.

Andere Arriolabengoak egubakoitzean Lantziegoko Luis R upategian egin zen kanporaketan parte hartu zuen. Egin beharrek lanak eginda, 146,5 puntu lortu zituen eta laugarren sailkatu zen.

Manex Agirrek eta Iker Agirrek berriz zapatuan izan zuten

kanporaketa Aguraingo Saraio-la jatetxean. Manex hirugarrena izan zen 151 punturekin; Iker, berriz, bosgarrena 142,5ekin. Hamabi bertsolari pasa dira finalaurrekoetara: jokoan egon diren hiru kanporaketetako lehenak eta puntuazio onenak lortu dituzten lehen bederatiak. Horrela lortu zuten txartela aramaioarrek.

Manex Agirrek martxoaren 9an Gopegin egingo den finalurrekoan hartuko du parte. Arriolabengo eta Iker Agirre martxoaren 16ko Aramaio finalurrekoan saiatuko dira finalean sartzen.

OÑATIKO BERTSO TXAPELKETA

Zapatuan jarri zuten abian Oñatiko V. Bertso Txapelketa. Hiru kanporaketa izango dira denera, eta zapatuko saioan jada finalean egongo diren lehen bi bertsolariak zeintzuk izango diren erabaki zen: Joseba Lasagabarterrek eta Ander Lizarralde lortu zuten aurrera egitea. Andoni Goitia, Egoitz Aizpuru, Urko Egaña eta Josu Igartua izan ziren kanporaketan parte hartu zuten beste bertsolariak, eta Mirari Sagarzazu ibili zen gai jartzaile lanetan.

Datorren zapatuan izango da hurrengo kanporaketa, Pako tabernan, arratsaldeko seieta-tik aurrera. Sei bertsolari ibiliko dira nor baino nor finaleko beste bi posturen bila.

PUNKA > KONTZERTUA BERGARAN

Punkak hartu zuen Bergarako gaztetxea

Bergarako Ipintza Institutuko ikasleek ikasbidairako dirua ateratzeko antolatu zuten kontzertuak Punk zale asko erakarri zituen.

TXOMIN MADINA > BERGARA

Ez bat, ez bi ezta hiru ere. Sei izan ziren denera zapatuan Bergarako gaztetxeako taula gainera igo ziren punk taldeak. Hasiera baten zazpi zirela iragarritako taldeak; azkenean baina, Donostialdeko Ostikada Potrotan taldeak ezin izan zuten bere kontzertua eskaini, taldekide bat gaixorik zegoen-eta.

Kontzertua seietan hastekoa bazen ere, azkenean ordu-bete pasatxo atzeratu behar izan zuten.

BERGARAREN DEBUTA

Soraluzeko Junzai Txetxera taldea izan zen gitarrak astintzen lehena, baina jende gehien erakarri zuen emanaldia bigarrena izan zen, *No hay solucion* talde bergararrarena. Jendaurrean ematen zuten lehen

kontzertua izan zen, ikusmin handia sortuz. Gaztetxo asko erakarri zituen euren kontzertuak.

Hauen ostean, Arrasateko Foxy Boxy taldearen txanda izan zen, eta gero Bergarako beste talde batek egin zuen emanaldia, Cold Revenge taldeak hain zuten ere. Oñatiko bi talderi egokitu zitzaizkien kontzertu gau luzeari amaiera ematea: Sospechosos eta Golpe de Estadori. Azken taldeak azken kanta amaitu zuenerako, goizaldeko lauak pasatxo ziren.

IKASBIDAIA, GERTUAGO

Ipintza Institutuko ikasleek ikasbidairako dirua biltzeko antolatu zuten kontzertua, eta datu zehatzik ez bazuten ere, gustura agertu ziren bildutako jende kopuruarekin.



SORALUZETIK Junzai Txetxera taldeak ireki zuen kontzertu sorta.

J.A.

Antolatzaileak:



Laguntzaileak:



UNESCO Etxeak elkartutako hainbat eragilek bereziki efektiboak diren emaitzak lortzeko ekarriaren bitartez konpartitu dituzte Green Belt Movement erakundeak bost-berritze, garapen eta generoaren alorrean Kenyan garatzen dituen proiektuen bidez.

GIZ
'Klima-aldaketari aurre egiten: elkartasuna mundu zatitu honetan'
2008ko martxoaren 11ean, asteartea, 18:30etan, Arrasateko kultur Etxean (Azoka kalea 1)

Nazio Batuetako Garapenerako Programaren (UNDP)
GIZA GARAPENARI BURUZKO 2007 - 2008ko TXOSTENA
'Klima-aldaketari aurre egiten: elkartasuna mundu zatitu honetan'
2008ko martxoaren 11ean, asteartea, 18:30etan, Arrasateko kultur Etxean (Azoka kalea 1)

MAHAI INGURUA

UNESCO Etxeak, Arrasateko Udala eta Goiena Komunikazio Zerbitzuekin batera, atsegin handiz gonbidatzen zaituzte Giza Garapenari buruzko 2007 - 2008ko txostena 'Klima Aldaketari aurre egiten: Elkartasuna mundu zatitu honetan' aurkezteko euskaraz burutuko dugun mahai-ingurura.


Mahai inguruan partaide izango dira:

- Iñaki Antiguedad jauna, EHUko Hidrologiako irakasle katedraduna.
- Gorka Bueno jauna, EHUko Ingenieritza Goi Eskola Teknikoko irakaslea.
- Izaro Basurko jauna, IHOBE-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoko teknikaria.
- Josu Sanz jauna, UNESCO Etxeko Ingurumen Saileko arduraduna.

Mahai ingurura bertaraten direnek txostenaren laburpenaren euskarazko bertsioa eskuratzeko aukera izango dute. DOAKO SARRERA. Bertaratzeko asmoa martxoaren 7a baino lehen konfirmatzea eskertuko dugu.

Izena emateko eta informazio gehiago lortzeko:

UNESCO Etxea • Tel. 94 427 64 32 • i.intxausti@unescoeh.org • www.unescoeh.org



INDEPENDENTZIA OIHUKATU!



eusko
alkartasuna

herriarenahotsa



euskoalkartasuna.org



Saioen emanaldiak GOITBn



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Alazne Agirre, Amaia Beitia, Julene Urrutia eta Miren Ugarte.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 10 eta 11 urte.
ABESTIA > *Goizero.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Ainhoa Alzola, Alex Arribas, Leire Cabezas eta Leire Zubillaga.
HERRIA > Aretxabaleta.
ADINA > 10 eta 11 urte.
ABESTIA > *Galdurikan nago.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Ainhoa Barrena, Ainhoa Perez, Carmen Espinosa eta Maider Usandizaga.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 10 eta 11 urte.
ABESTIA > *Lau teilatu.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Ainhoa Elkoro-barrutia, Maialen Zugasti eta Maider Errasti.
HERRIA > Aretxabaleta.
ADINA > 7 eta 8 urte.
ABESTIA > *Maite zaitut.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Desiree Aiastui, Guadalupe Teixido, Leire Zabarte eta Nagore Elortza.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 7 eta 8 urte.
ABESTIA > *Furra, furra.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Anne Paul, Iratxe Gomez, Juncal Gonzalez eta Nagore Balantzategi.
HERRIA > Aretxabaleta.
ADINA > 7 eta 8 urte.
ABESTIA > *Katuen testamentue.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Jone Biain, Miren Sanz de Galdeano, Nerea Elortza eta Uxue Zabaleta.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Arratsalde honetan.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Garazi Ortiz de Mendibil, Itxaso Urrutia eta Unai Diez.
HERRIA > Aretxabaleta.
ADINA > 10 urte.
ABESTIA > *Kaiser Sose.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Bibiñe Urtzelai eta Nagore Marrero.
HERRIA > Oñati.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Eskutitza.*



NOIZ > Martxoaren 4an.
ORDUA > 20:15ean.
TALDEA > Leyre Fernandez de Antoña eta Nahia Gomez.
HERRIA > Aretxabaleta.
ADINA > 9 urte.
ABESTIA > *Arratsalde honetan.*

"Musika biziak eta melodikoak nahastu ditugu lehen diskoan"

Golpe de Estado taldeak *Mi prision* izeneko lehen diskoa bukatzean du; salgai jarri aurretik edizioa egitea falta zaie

Dagoeneko hainbat kontzertu dituzte lotuta oñatiarrek, besteak beste, martxoaren 14an Aretxabaletan emango dutena

MIREIA BIKUÑA > OÑATI

Oñatiko Golpe de Estado taldeak *Mi prision* izeneko diskoarekin dihardu lanean. Edizio lanak egitea falta dute diskoa salgai jartzeko. Edozelan ere taldeko kide, Xabi Elortzarekin, Mikel Egañarekin, Laurendi Ugarterekin eta Txomin Gartziaekin egin dugu berba diskoari buruz.

Diskoari azken ukituak ematen zabilzate. Ze falta da bukatzeko?

Edizio lana amaitu barik dugu oraindik. Hortaz, ez dakigu diskoa noiz bukatuko dugun eta salgai noiz jarriko dugun. Dena dela, diskoa bukatuta dagoenean guk dugun Myspace gunean (myspace.com/golpedestadopunk) jarriko dugu entzuteko.

Eta diskoa grabatzeko orain arte egindako lana, nolakoa izan da?

Nahiko gogorra izan da. Abestiak abuztuan grabatu genituen, eta ordutik nahasketak egin eta diskoarekin diseinuak egin ditugu. Gainera, banatzaile baten bila ibili gara. Gezurra dirudien arren, guzti horrek denbora eskatzen du.

Banaketa nola egingo duzun erabakita duzue?

Valentziako Punk Machine banatzailearen eskutik zabalduko dugu diskoa Espainiako estatuan. Bestalde, Puzkarra Recordseko lagunek, Donostian, Zarautzen, Iruñean, Iparraldean eta kontzertuetan banatuko dute gure lana.

Azkenik, gu geu arduratuko gara Gipuzkoako eta Bizkaiko banaketaz; bailaran ere guk zabalduko dugu diskoa.

Bukatu barik dagoen arren, aurreratu daiteke nolako diskoa izango den?

Hamar kanta bildu ditugu diskoan, eta musika biziak eta melodikoak nahastu ditugu. Egia esan, oso gustura gaude lortu dugun soinuarekin.

Gainera, beti esan digute punk rocka lantzen dugun taldea garela. Guk uste dugu punk rocka egiten duten taldeen influentzia dugula, baina, era berean, uste dugu gure musika propioa egiten dugula.




Maketako *A mi manera* grabatu dute diskoarekin

Golpe de Estado lehen taldeak maketan jaso zuen *A mi manera* kanta berreskuratu dute lehen diskoarekin. Gainera, idatzita egon arren grabatu barik zituzten kantak aprobetxatu dituzte lehen diskoarekin. Guztira hamar kanta ditu lanak, hain zuzen: *Mi prision*, *Tengo que escapar*, *¿Cuando te vas?*, *40 días y 40 noches*, *RTR*, *New York*, *Una pistola de verdad*, *Se siente*, *A mi manera* eta *Amor fatal*. Egunerokotasunean oinarritutako istorioak kontatzen dituzte bertan. "Taldekideekin duen ideari musika jartzen ahalegintzen gara", esan digute taldekideek, "hortaz, talde-lana egin dugu".

Diskoa momentuz ez dute salgai jarri, bukatzeko edizioa egitea falta zaie. Baina, Oñatiko taldeak jotzen duen punk rockaz gozatzeko aukera egongo da datozen egunotan, ibarreko hainbat tokitan kontzertuak emango dituzte-eta.

Mireia Bikuña



Ezkerretik eskumara, Laurendi Ugarte, Txomin Gartzia, Xabi Elortza eta Mikel Egaña.

GOLPE DE ESTADO

Hortaz, zeintzuk dira zuen talde erreferenteak?

Talde asko gustatzen zaizkigu, besteak beste, The Clash, The Boys, MCD, Social Distortion, Die Toten Hosen, 999, Vibrators, Us Bombs, Ramones, Dictators, NCC eta Slaughter and The Dogs. Gainera, Euskal Herriko 80. hamarkadako hainbat talderen erreferentziak ditugu. Ahalegindu gara talde bakoitzak duen onena hartu, eta gure musikara egokitzen.

Diskoa bukatu barik, dagoeneko kontzertu batzuk lortu dituzue. Noiz hasiko zarete?

Egia esan, dagoeneko zortzi kontzertu lotu ditugu datozen asteetarako: martxoaren 8an Araiako gaztetxean joko dugu; martxoaren 14an Aretxabaletako Haizea tabernan; martxoaren 28an Legazpiko gaztetxean; apirilaren 12an Oiartzunen; eta apirilaren 18an Soralezko gaztetxean. Hortaz, oso pozik gaude lotutako kontzertuekin.

Taldean kide berri bat duzue.

Bai. Txomin Gartzia da taldeko bateria-jotzaile berria. Gargartzarra da. Orain taldea lau lagunek osatzen dugu.

Latzenen talde gonbidatua izan zineten Gasteizko kontzertuan. Zer nolako esperientzia izan zen?

Gustura jaso genuen Latzen taldearen gonbidapena. Musika estilo ezberdina lantzen dugun taldeak izan arren (guk punk roc-

ka lantzen dugu, eta haiek metal doinuak), esperientzia oso ona izan zen. Gainera Oñatiko jende mordoan egon zen kontzertuan.

Udalaren dirulaguntza jaso duzue diskoarekin. Beharrezkoak al dira halako laguntzak?

Laguntza eskertzen da, baina guri ez digu inork ezer oparitu. Dena dela gaztetxeengatik izango ez balitz ez dakigu zer gertatuko litzatekeen gu bezalako taldeekin.

astea GOITBn

Astelehena, 3



> Artzaintza tradizionala eta moderna
21:47

Artzaintzan jarduteko lehengo eta oraingo moduetara gerturatuko gaitu aste honetarako Julen Iriondo kazetariak landutako erreportajeak.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea: Tipi Ttapa.
14:15 Eltze beroa.
14:45 Berriak.
15:15 Ilunpean
15:45 Gaurkoak.
15:47 Berbaire.
16:15 Berbaire.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ikusmira.
18:15 Ikusten.
18:45 Berriak.
19:15 Gertutik.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Calimero.
20:45 Berriak.
21:15 Harmailatik.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Erreportajea.
22:15 Kirolari.
22:45 Berriak.
23:15 Harmailatik.
22:45 Gaurkoak.
23:30 28 Klipa.
00:15 Emisio amaiera.

Martitzena, 4



> 'Kantari' saioa bigarren bueltan da GOITBn
20:15

Joan den astean amaitu ziren *Kantari* ikuskizuneko saioak eta aste honetan hasiko dira berriz gaztetxo saioak hasieratik eskaintzen.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Horry.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Erreportajea.
14:15 Harmailatik.
14:45 Berriak.
15:15 Gertutik.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Kirolari.
16:15 Eltze beroa
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 28 Klipa.
18:15 Musikantoi.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak: Horry.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari
20:45 Berriak.
21:15 Teknopolis.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire
22:15 Animaliak.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusmira.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Erreportajea.
00:15 Emisio amaiera.

Eguaztena, 5



> Gertuko informazioa, egunero GOITBn
14:45 eta 19:45

Ibarrean gertatutako albisterik aipagarrienak, GOITBn. Gertuko informazioa, Goiatz Arana (irudian) eta Larraitz Zeberio kazetarien eskutik.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak: Calimero.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Eltze berioa.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animaliak.
16:15 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Calimero.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Gertutik.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazki bizidunak.
19:45 Berriak.
20:15 Zaharrak berri.
20:45 Berriak.
21:15 Ikusten.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Euskal artzainak.
22:15 Gu ta gutarrak kontzertuan.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Jazmina.
00:15 Emisio amaiera

Eguena, 6



> Lost Souls taldekoekin elkarrizketa
22:15

Musikantoi saioan, Lost Souls taldeko kideak elkarrizketatuko ditu Maider Arregik. Taldeak, *25 hits of Mondra* diskoan hartu dute parte.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Zaharrak berri.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Marazki bizidunak.
14:15 Euskal artzainak.
14:45 Berriak.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Animalia.
16:17 Teknopolis.
16:45 Berriak.
17:15 Horry.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Gertutik.
18:15 Harmailatik.
18:45 Berriak.
19:15 Marrazkiak.
19:45 Berriak.
20:15 Kantari.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Berbaire.
22:15 Musikantoi.
22:45 Berriak.
23:15 Ikusten.
22:45 Gaurkoak.
23:30 Ilunpean.
00:15 Emisio amaiera

Egubakoitza, 7



> Edurne Azuara 'Ilunpean' saioan izango da
22:15

Bergarako aktorea elkarrizketatuko du Iker Barandiaranek. Azuarak, besteak beste, *Hasi-berriak* eta *Balbemendi* telesailetan egin du lan.

13:15 Emisio hasiera.
13:20 Marrazki bizidunak.
13:45 Gaurkoak.
13:47 Kantari.
14:15 Animaliak.
14:45 Albiste aurrerapena.
15:15 Berbaire.
15:45 Gaurkoak.
15:47 Eltze beroa.
16:15 Musikantoi.
16:45 Albisteak.
17:15 Marrazki bizidunak.
17:45 Gaurkoak.
17:47 Ilunpean.
18:15 Euskal artzainak ameriketan.
18:45 Albisteak.
19:15 Ikusmira.
19:45 Berriak.
20:15 Marrazki bizidunak: Marrazki bizidunak.
20:45 Berriak.
21:15 Erreportajea.
21:45 Gaurkoak.
21:47 Gertutik.
22:15 Ilunpean.
22:45 Berriak.
23:15 Berbaire.
23:45 Gaurkoak.
23:30 Musikantoi.
00:15 Emisio amaiera.

arrasate irrata

FM 107.7

> Karelean taldearen diskoa eta 3.60rako sarrerak zozketan
10:30

Arrasate Irratian, orain arte moduan, 3.60 aretoko kontzertuetarako sarrerak zozketatuko dituzte hemendik aurrera ere. Bestalde, Gaztelupeko Hotsak disko etxeak kaleratu berri duen Karelean diskoa zozketatuko du.

Zapatua

10:00 Asteko gainbegiratua.
Ilunpeans saioan, Exkixu taldeko Alex Sardui; musika kontuak, *Kantaka* saioan; hirugarren adinekoen gainekoak (dieta kontuak, besteak beste) *Zaharrak* berrisaioan, eta beste.

Domeka

10:00 Asteko gainbegiratua.

Astelehenetik eguaztenera

10:00-12:00 Igo Autobusera
Albistegia
Eguraldiaren iragarpena (Joxe Landa)
Ilunpean
Teknoberriak
Igo Euriborrera!
Kantaka
Zaharrak Berri
Astearren errepaso
Zozketak
Zorion agurrak
(parte hartzeko: 943 25 05 05 (*irratia@goiena.com*))
11:55 Arrasateko albisteak, labur.
12:05 Euskadi Irratiko albistegia
12:10 Izarren ordua: abesti ezagunak
13:00 Euskadi Irratiko albistegia.
14:00 Igo Autobusera! (errep.)
17:00, 19:00, 21:00, 23:00 albistegi laburra.

gertutik



Julio Ibarra
Komunikatzailea

"Arrasateko Biona taberna niretzat erreferentia da"

MIREN ARREGI > ARRASATE

Santutxuko langile auzo batekoa da Julio Ibarra. Bilbotar peto petoa, 18 urte eman ditu EITBn; *Teleberri*-ko aurkezle izan da azken 10 urteotan. Egun, Metro Bilbao Komunikazio arduraduna da. Haren berbegure ibarra asko maite duela erakusten dute. Lagun asko ditu gurean eta ahal duen guztietan egiten du bere Bilbo handitik gurerako bidaia.

Metro Bilbaoko lana oso desberdina da orain arte egin duzunarekin alderatuz?

Diferentia da, baina ez dago hain alde handirik. Informazio Zientziak ikasi nituen eta Publizitate eta Marketingean espezializatu. Harrigarria da, izan ere, ondoren kazetaritza landu nuen, ikasketetan aukeratu ez nuen, alegia. Askok gustatzen zait kazetaritza baina hor neuzkan zintzilik marketinga eta publizitatea eta orain horretan nabil. Dena den, ez dut kazetaritza alboratu, izan ere, egiten ditut nire gauzatxoak irratian eta telebistan. Beharrezko dudana dosia da.

Athleticzale amorratua zara.

Athletic zale amorratua naiz baina begira, bost anai arreba gara eta daukadan anaia bakarria realzale amorratua da bilbotarra bada ere. Beti esaten diot hitzak berak esaten duela Euskal Herria dela *Bilbo Handia*. Bilbotarra banaiz ere, lagun gipuzkoar asko ditut; asko ibili naiz Arrasate, Bergara eta Eskoriatzan. Hori zen nire ingurua.

RIPen jarraitzaile sutsua zara...

Orain (egubakoitzean) dudana bileratik bukatu ahala trajea kendu, maletegi sartu, bakeroak eta kamiseta jantzi eta saiatuko naiz Arrasatera joaten Biona tabernatik pasatzeko. Niretzat Biona taberna, nahiz eta azken urte hauetan gutxi azaldu naizen, erreferente bat da. Garai hartako erreferentia hain zuzen be. Joango naiz, bai, sentimentala naizelako.

Zure bihotzak auzo langile bateko izaera du, ezta?

Bai, guztiz. Santutxu auzokoa naiz, eta badakit zer den auzoa, kaleko jendea, zer dagoen kalean, zenbat sufritzen den, eta nahiz eta gorbata eraman eta telebistan agertu, inoiz ez dut ahaztu nondik natorren eta nor den nire jendea.

asteko hitzorduak

Kontzertua



ARRASATE

> Herbehereetako Sunnpimp rock taldeak 3.60 aretoan joko du

Herbehereetako Sunnpimp rock-thrash taldeak egubakoitzean joko du 3.60 aretoan, 23:00etan. AC/DC, Stooges edo MC5en eraginak euren estilora moldatzen dituzte. Los Cretinos taldeak ere joko du gau berean.

Antzerkia



OÑATI

> '¿Te acuerdas, abuela?' antzezlanerako sarrerak salgai daude

¿Te acuerdas, abuela? delako antzezlan egingo du Pok taldeak zapatuan, hilak 8, Santa Ana antzokian, eta sarrerak salgai daude kultura etxean. Antzezlan Alzheimerri duen emakume baten gainekoa da.

Antzerkia



ARETXABALETA

> 'Modelo clown contrapublicitaria' antzezlan egingo dute

Oihulari Klown antzerki taldeak *Modelo clown contrapublicitaria* antzezlan egingo du eguenean, hilak 6, Kurtzabarri eskolan, 19:30ean. Emakumearen Nazioarteko Eguneko egitarauaren barruan dago emanaldi hori.

kuxkuxeroa



Xabier Urtzelai

Zutabie
aldizkari
billakatute

Bizi dana kazetaritza seri-xue egin guran, eta kon-turatu orduko *Kuxkuxeroak* zutabie idaztie tokau jat, domeka goiz baten. Danerako gazela...

Hain zuzen be, horren gai-nien berbetan ibilli gitzen egu-bakotxien lau lagun: zutabe hau biherrien, iñori ez jako okurridu txutxu-mutxuekin aldizkari bat egittie, hamen Debagoienien? Zapatu gabien, **Ezkutu** (Aretxabaleta), **Kajoi** (Arrasate), **Ongi** (Oñati) edo **Ariznoa** (Bergara) taberna kanpuen paparazzixek ipiñi,

"Atxabalpeko
parkingera edo
Urkulure juetie
besteik ez dau,
gabez"

eta eskusibaren baten zain egon... Edo, **Atxabalpeko parkiñera** edo **Urkulure juetie** besteik ez dau, gabez—**Mendiolan**, *follar si, pero limpiar tamen* idatzi daue kartel baten—.

Eta, apur bat pentsetan hasitte, hainbat atal euki leike aldizkarixek: zapatu gabien moderno jantzittako **Andonik** astelehenien fundiziñuen ze itxura dauken; ibarreko pareja ederrak; zeintzuk dien geure arteko urrezko soltero-solterak; enpresaburu modernuenak; zeñi tokau jakon Etxebideko azkeneko sorteu en etxe barrixe....

Dirue egittie gure daue-nak, hortxe dauko aukerie, edo **Akizuk** esaten dauen moduen, doktoretza tesi batarako gaixe. Neu, barriz, bixer ahalegindduko naz barriro serixue izeten. Izen be, gaur...

asteburuko albuma

Andaluzia eguna. Zapatuan Arrasateko Al-Andalus elkartean Andaluzia eguna ospatzeko hainbat ekitaldi egin zituzten. Goizean, Aste Santuko erakusketa bat inauguratu zuten. Ondoren Gokobalu abesbatza eta Alegria de la Sierra taldeen emanaldia egon zen. Arratsaldean gaztetxoentzako pailazo eta magia ikuski-zuna egon zen. Gauan, elkarte-ko bazkideentzako afaria prestatu zuten. Guztira 115 pertsona egon ziren. Afal osteko giroa animatzeko Sevillatik etorritako Los Tarantos taldearen (argazkian) emanaldia egon zen. Arrasateko Al-Andalus elkarteak ez ezik, Bermeo eta Galdakaokoak ere egon ziren bertan.



Santu Martirien eguna. Atzo, domeka, Bergarako Osintxu auzoan, Santu Martirien eguna ospatu zuten. Bertan, besteak, beste talogileak egon ziren, baita dantzariak ere. Moises Azpiazu dantza taldeko dantzariak aritu ziren bertan, baita Arrasateko Lore Gazteak taldeko dantzariak eta Osintxuko Musikarako dantzariak ere.



Sahararen aldeko herri bazkaria. Eskoriatzako pilotalekuan Sahararen aldeko herri bazkaria egin zuten zapatuan. Guztira 115 pertsona bildu ziren. Goizean goizetik baina haurrentzako zirko tailerra egon zen, eta herriko plazan egindako beste ekitaldi batekin, SAEDen (Saharako Errepublikar Arabiar Demokratikoa) 32. urteurrena ospatu zuten.



AHTren inguruko mendi martxa. Zapatuan, Arrasaten, AHT-k kaltetuko dituen inguruetatik mendi martxa antolatatu zuten Arrasateko AHT gelditu! Elkarlanak. Guztira 60 lagun inguru egon ziren martxa honetan eta Ibilbidean Arrasate eta Aramaioko lurretan zein eragin izango duen ezagutzeko aukera izan zuten. Amaitzeko eta indarrak berreskuratzeko salda eta txorizoa jan zuten.

ESKER ONA

Roque
Martinez Peña

Bergaran hil zen 2008ko otsailaren 25an, 80 urte zituela.

Josu, Maria, Jaione, Iñaki, Arrate eta Margarita Iñurrategi: eskerrak eman nahi dizkizue hileta-elizkizunetara joandakoei eta samin-agurrak bidali zenizkiguteno.



Bergaran, 2008ko martxoaren 3an

OROIGARRIA

Jesus
Alberdi Garbizu 'Egileor'

Bergaran hil zen 2008ko martxoaren 2an, 77 urte zituela.

*Adiskideen adiskidea
umila eta gozoa
entzule fina, kantari ona
hizketan patzarosoa
oholtzan eta lagun artean
beti pertsona osoa
umoreari jarri diozu
beti zure aletroa
zu bezalako pertsoneri esker
aberasten da bertsoa.*



Bertsozale Elkarte.
Bergaran, 2008ko martxoaren 3an.

hildakoak

- **Francisco Javier Arbizu Bacalco** Arrastan, otsailaren 28an. 78 urte.
- **Eugenia Lazpiur Iñarra** Bergara, otsailaren 28an. 90 urte.
- **Sor Maria Alcelay Marculeta** Oñati, otsailaren 29an. 81 urte.
- **Gabriela Elorza Askasibar** Arrasate, otsailaren 28an. 91 urte.
- **Maria Basterretxea Aldaolea** Bergara, martxoaren 1ean. 87 urte.
- **Jesus Alberdi Garbizu** Bergara, martxoaren 2an. 77 urte.

PARTE HARTU

Kintadak, aste bukaerako ezkontzak, txutxu-mutxuak...

Tarte hau zure txokoa da, irakurle.

Ekar ezazu argazkia eta azalpena edo bidali honako helbidera: astelehena@goiena.com

zorion agurrak



ARRASATE
Angel Bedia
Otsailaren 26an. Zorionak eta urte askotarako! Patxo pila bat Peña TAClren partetik.



ARRASATE
Markel Mancebo
Otsailaren 26an, 3 urte. Zorionak eta patxo handi bat Felipe, Igor eta Saioaren partetik.




ARRASATE
Ziortza Agirreurreta
Otsailaren 27an. Zorionak Zio! Sagardotegian izan-go dugu ospatzeko aukera! Patxo pottolo bat, lagun izkutuaren partetik!



OÑATI
Gemma Muñoz
Otsailaren 28an. Zorionak eta urte askotarako!! Ondo pasau eguna eta muxu asko familiarian partez.



OÑATI
Ane Zarketa
Otsailaren 28an. Zorionak eta urte askotarako!! Ondo pasau zeure egunian eta laztan haundi



ESKORIATZA
June Fernandez
Martxoaren 2an, 3 urte. Zorionak zure familiarian partez, batez ere anaia.



ARRASATE
Luken Ugarteburu
Otsailaren 2an. Zorionak eta muxu handi bat familiariko partetik!



ARRASATE
Alaitz Agirreurreta Litago
Otsailaren 2an. Zorionak pottola, patxo haundi bat etxeko danon partez eta bat haundi haundi bat Gaizkan partez. Muuuuuuu!



ARETXABALETA
Iker Isasmendi Zubizarreta
Martxoaren 3an 31 urte. Zorionak zure familia eta Jasonen partez. Laztan goxo bat eta ondo pasa eguna.



ARRASATE
Alazne Zubillaga
Martxoaren 3an, 7 urte. Zorionak zure familia eta lagun guztien partez.




ARRASATE
Ioseba Heriz
Martxoaren 5ean. Zorionak mutil! 21 urte ia, ondo pasata horrela segi. patxo pila zigarrolakuen partez.



ARETXABALETA
Eneko Lopez de Armentia
Martxoaren 5ean, 13 urte. Zorionak eta ondo-ondo pasatu eguna, etxeko guztien partetik.



BERGARA
Uxue eta Maialen Agiriano
Martxoaren 5ean. Uxuek, otsailaren 23an, 7 urte. Maialenek martxoaren 5ean, 2 urte. Zorionak!



ARETXABALETA
Malen Basabe
Martxoaren 5ean, 5 urte. Zorionak eta patxo handi bat etxeko guztien partetik.



BERGARA
Ainara Gomez
Martxoaren 7an, 5 urte. Gurasoak, aiton-amonak eta izeban partetik zorionak!



OÑATI
Xabier Derteano
Martxoaren 6, 24 urte. Zorionak! Pa haundi bat ta ondo ondo pasau zure egunian!




OÑATI
Eneritz Osinaga Osinaga
Urte askotarako prexioxa. Ondo pasau zure urtebetetze eguna. Patxo haundi bat etxekuen partez.



BERGARA
Aitor Agiriano
Martxoaren 8an, 8 urte. Zorionak etxekoen partetik, bereziki Amaiaen partetik.




BERGARA
Elisabet Rodriguez
Martxoaren 8an, 7 urte. Aiton-amona, guraso eta Christianen partetik patxo bat!



ARETXABALETA
Maialen Gonzalez de Martin
Martxoaren 9an. Urtebete. Zorionak eta laztan handi bat familiariko guztien partetik.



BERGARA
Gotzon Arzelus
Martxoaren 1ean Ondo pasau zure egunean eta zorionak lankideen partetik!!



OÑATI
Aitor Urizar Markuleta
Otsailaren 28an, 10 urte. Zorionak mutil, etxeko guztien eta bereziki Manexen partetik.



ARRASATE
Maite Lizundia
Martxoaren 2an, 6 urte. Zorionak Arizmendi Sanvi Txikiko lagunaren partetik.



ARRASATE
Naiara Oroiz Muñez
Martxoaren 2an, urtetxo bat! Zorionak txiki aita-txo eta amatxoren partez!

jaiotakoak



Markel Aranburuzabala Kortabarria
Arrasate > 3,240 kilo. Otsailaren 22an. Gurasoak: Larraitz (Arrasate) eta Asier (Arrasate). Argazkian, Markel jaioberria kunan.



Aitor Anton Serrano
Arrasate > 3,100 kilo. Otsailaren 28an. Gurasoak: Soraya (Bergara) eta Aitor (Bergara). Argazkian, Aitor jaioberria.



Izar Barrutia Font
Bergara > 2,760 kilo. Otsailaren 29an. Gurasoak: Lizzi (Sagua La Grande) eta Juan Luis (Bergara). Argazkian, Izar jaioberria aitarekin.



Manel Sancho Raso
Eskoriatza > 3,200 kilo. Otsailaren 29an. Gurasoak: Lourdes (Eskoriatza) eta Miguel (Eskoriatza). Argazkian, Manel jaioberria aitita Pakorekin.



Andrea Edroso Fraile
Antzuola > 2,910 kilo. Martxoaren 1ean. Gurasoak: Raquel (Madril) eta Victor (Bergara). Argazkian, Andrea jaioberria amaren besoetan.

ESKELAK

GOIENKARIAN eskela jarri nahi baduzu, deitu telefono honetara eguen eguerdia baino lehen:

943 25 05 05

Edo zatorz ordezkaritza batera, eguazten eguerdia baino lehen:

Arrasate Goiena: Otarora lizentziaduna 31. 943 25 05 05 / Goiena: Nafarroa etorbidea 2. 943 25 05 05. **Bergara** Goiena: Barrenkalea 33. 943 25 05 05. **Oñati** Biklon publicitate agentzia: Olakua 9. 943 78 10 65 **Arexabaleta**: Goiena: Durana 11. 943 79 86 21. **Aramaio**: Kintelena janari denda: Nardeaga 11. 945 44 50 22. **Elgeta**: Ugari janari denda: Andra Mari plaza 2. 943 76 80 98. **Antzuola**: Itzar liburu denda: Kalebarren 1. 943 76 60 62.

Eskelaren prezioa: 100 euro. Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 90 euro. Prezio berezia: egubakoitzeko eta asteleheneko GOIENKARIAN, bietan, argitaratuz gero, **120 euro.** Asteleheneko Goienkariako harpidedunak: 110 euro.

Goienkaria: astero, 50.000 irakurle Gipuzkoan (CIES).

BABESLEA



IKUSI MAKUSI



Lazarraga 4 OÑATI 943 08 23 32

Eduarne Azuara > Aktorea

"Aktore lanaz gain, ostalaritza ere daukat"

IKER BARANDIARAN > ARRASATE

Eduarne Azuara Bergarako aktorea *Hasiberriak* eta *Balbemendi* tele-sailetan lanean ibili da, eta film batzuetan ere esku hartu du. Baina, ostalaritza eta liburugintza ere dihardu. Bilbon bizi da aspaldian, baina Bergarara sarri etortzen da.

Umetan etxean asko laguntzen zenuen?

(Barre) Ez asko. Geroago, ahizpak eta biok apur bat ikasi genuen. Aitak, berriz, zaletasun handia izan du beti.

Topikoa da ostalaritza ikas-tea ikasketa handirik egin gura ez izateagatik?

Nire kasuan ez neukan oso argi zer ikasi, bost urte ikasten egoteak ez ninduen motibatzen... Ostalaritza aukeratzeraan pentsatu nuen alor horretan beti dagoela lana, eta pertsonalki norberarendako asko balio duela. Gainera, Oñatin Ostalaritza ikas-ten oso gustura ibili nintzen, eskola oso ondo prestatuta zegoen eta egia esanda, orduan ikasi nuen oinarritzko janak egiten, ordura arte ez nekiena (barre).

Bergaran antzerki hastapeneko ikastaro baten izena eman zenuen ia kasualitatez. Lotsa kentzea zen helburua?

Ez. Batez ere zer zen ikusteko jakin-mina neukan. Ez neukan lotsa kentzeko helbururik, baina lotsati samarra naiz, eta egia da pertsonaiak interpretatzea mozo-rrero antzeko bat dela; orduan ez naiz Eduarne, pertsonaia baizik.

Debagoiendar askok ezagutu zintugun sukaldaritza saioan ogitartekoak egiten erakuste-agatik...

TEST-A

Herria: Bergara. **Adina:** 30 urte. **Ikasketak:** Ostalaritza eta Arte dramatikoa. **Zaletasunak:** Irakurtzea, zinemara joan eta txikiteoa egitea. **Zer amets bete duzu?** Aktore lanak egitea. **Eta zer amets daukazu betetzeko?** Etxe bat erostea. **Nora egingo zenuke bidaiaria bat?** Ez dut bidaiatzeko aukera askorik izan, eta Egiptora joango nintzateke gustura. **Musika talde bat?** Hertzainak. **Liburu bat?** *El nombre de la rosa*.

Bai. Hain justu Bergarako Biko tabernakoak lagunak ditut eta hori egitea proposatu zidaten. Hori egiten lotsa apur bat pasatu nuen, hor Eduarne nintzen-eta.

Hasiberriak tele-sailean egin zenituen zure lehenengo interpretazio lanak? Asko aldatu zen zure bizitza?

Bai. Oraindik Basauriko antzerki eskolan nabilen eta *casting*-era joatea erabaki genuen. Inola ere ez nuen uste hainbeste jenderen artean hartuko nindutenik! Esperientzia oso berezia izan zen, eta hasieran oso galduta egon nintzen, baina jende asko ezagutu nuen eta horrek asko lagundu dit. Bestalde, 20 urte besterik ez nituen eta neurri baten gogorra egin zitzaidan ezagun izate hori.

Aktore askok Madrilerara jotzen dute. Zuk baduzu asmorik?

Bat ere ez. Eskaintza bat egin-go balidate joango nintzateke, baina bestela ez. 20 urterekin, *Hasiberriak* bukatzean egin ez banuen... Ostalaritza eta beste gauza batzuk ere badituz.



'BALBEMENDI' Eduarne Azuara *Balbemendi* tele-saileko protagonista da.

ETB

ai, ene!



Rubik Sudokua

Adimen erronkak gustuko dituztenendako joko berria. Rubik kubotan koloreen orde zerbakiak erabiltzen dira sudoku jokoa antzera. Joko honen salneurria hiru euro da.

<http://elfurl.com/cms3y>

biharamuna

Marijo Deogracias

Iritsi da superastelehena


DGaueko hamarrak aldera jokatu da **ZP-Raxoi** hautagaien arteko bueltako partidua. Llamazares, bigarren, kanpoan geratu da eta atzo *El Pais*-ek argitaratutako inkesta ikusita -IUK talde parlamentarioa galtzeko arriskua ei dauka- jota behar du gizonak; beharbada **Marianoren** neskatoaren bila hasi beharko du **Jordi Évole 'Follone-roa'** lagun duela (sareko frikien artean itzelezkoa jokoa eragin duten bi pertsonaiek). Kinielarik egitekotan oraindik sasoiz gaude; PP ala PSOE? Nor aterako da garaile Madrilera? Hala ere, horrek baino jakinmin gehiago eragiten didate



Gipuzkoako emaitzek. Asteburuko inkesten arabera PNV eta PSE lehian ari dira nagusi izateko eta orain arte EAk izan duen diputatua ere arriskuan dago (**Alzelaik** segika du Aralarako **Irazabalbeitia** eta pixka bat hurrunxeago, EBko **Lopez**). Zapatuan amanean David anaiak ezker abertzaleaz galdetu zidan; ezker abertzale ofizialaz, abstentzioaz, alegia. Esan nion aukeran hori ere baduela, libreki bada behintzat.

Atzo, berriz, **Ynestrillas** Gernikara zetorrela-eta, ni Bilbora joan nintzan Maskaradaren *Ohean* antzez-lana ikustera; aukera baduzue, joan ikustera.

eguraldia



MAXIMOA

+13

MINIMOA

+11

Astea euripean hasiko dugu. Temperaturek nabarmen egingo dute behera. Arratsaldean euria ugaria izango da.

www.euskalment.net

IKER

SUKALDEAK:

ARRASATE: Udala Plaza z/g / 943 79 00 43
OÑATI: San Lorentzo 1 / 943 53 35 48

FAGOR

